

IKASKETA-ZERBITZUA ETA NEURRI JUDIZIALAK DITUZTEN ADINGABEAK

CLOTY LÓPEZ MARTÍNEZ
MAMEN MARRERO GARCÍA
RAFAEL MENDIA GALLARDO

ZERBIKAS
Gida **10**

Zuzendari editoriala: Aitziber Mugarra Elorriaga

Egileak:

Cloty López Martínez

Mamen Marrero García

Rafael Mendiá Gallardo

Aholkularitza: ZERBIKAS Fundazioa

La Laguna, 5 bajo (Plaza de la Cantera) 48003 Bilbo

Tfno.: 618159269 info@zerbikas.es

www.zerbikas.es / www.zerbikas.eus

Genero ikuspegiaren berrikusketa eta hizkera argia:

Lina Ugarte Sauret y Nerea Aizpurua Iraola

Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Erraza

Itzulpena: Sara Muniozguren Ortíz

Diseinua: Erreka Multimedia S. Coop.

Ilustrazioak: Aitziber Raya

ISBN: 978-84-09-46785-3

Lege-gordailua: LG BI 01740-2022



Aitorpena - Ez Merkataritzakoa - Berdin partekatu (by-nc-sa):

Jatorrizko lana eta lan horretatik eratorritakoak ezin dira merkataritza helburuetarako erabili.

Eratorritako lanen zabalkundea jatorrizkoaren lizentzia berdinean egin behar da

Aurkibidea

1. AURKEZPENA	4
2. ZUBIAK SORTU NAHIAN	6
3. LAGUNTZEN DUTEN ADINGABEAK	7
4. IKASKETA+ZERBITZUA, NEURRI JUDIZIALAK DITUZTEN ADINGABEENTZAKO GIZARTE- HEZKUNTZAKO PROPOSAMENA	9
5. NOLA GARATU IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU BAT?	12
6. ZER IKASKETA?	14
7. ZER ZERBITZU?	20
8. NEURRIRA EGINDAKO IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUAK?	26
9. IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUEN HEZKUNTZA-AUKERAK HAINBAT MOTATAKO NEURRI JUDIZIALETAN	35
10. IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU GARATU BATEN ADIBIDEA: IRRIBARREAK ERAIKI	51
11. ZEHAZKI, ZER AUKERA DITUGU?	65
12. ITURRIAK	66

1. AURKEZPENA

“Haurrak beren ezaugarririk onenak hurkoaren zerbitzura erabili beharraren kontzientzia hezi behar dira”.

Haurren Eskubideen Aldarrikapena eta Hitzarmena, 1989.

“Inor ez da besteei zerbaitei eskaintzeko aukerarik ez izateko txikiegia, pobreegia, edo bereziegia”

MARIA NIEVES TAPIA¹

Gida hau neska-mutil adingabeekin derrigorrezko testuinguru judizialean esku hartzen duten profesionalei zuzenduta dago. Edukian garrantzi handikoak dira bizitzarako ikasketen erreferentzia eta neska-mutil horiek bizi duten prozesu judizialean funtsezkoa den elementu bat: erreparazioa eta komunitateak erreparazioan duen zeregina.


Laguntzen ditugun adingabeek 14 urte edo gehiago dituzte eta neurri judizial bat betetzen ari dira. Prozesu horren barruan, nerabe bakoitzaren heldutasuna berrindartu, desblokeatu, katalizatu edo sortu nahi dugu eta baita harremanen eragina jasotzeko irekitasuna aprobetxatu ere, harremanak konpromiso, konfiantza eta prestasun giroan sortuz gero.

Hortik abiatuta eta prozesu horietako protagonista diren gazteei aukera eskaintzeko asmoz, gida hau bost zatitan banatuko dugu:

¹ TAPIA, N. (2008). La pedagogía del aprendizaje-servicio, un estado de la cuestión. En MINISTERIO DE EDUCACIÓN DE ARGENTINA (Coord.), Antología 1997-2007. *Seminarios Internacionales “Aprendizaje y Servicio Solidario”*, pp. 74-98. Buenos Aires: EUDEBA.

- **Lehen zatian** prozesu honen hiru parte protagonisten (hezitzaileak, neska-mutilak eta komunitatea) konbinazioak duen indar eraldatzailea eta hezkuntza-potentziala jasotzen dira, hausnarketa gisa.
- **Bigarren zatian** neurri judizial bat betetzen duten adingabeekin ikasketa+zerbitzuko proiektuak bultzatzeko arrazoiak partekatzen ditugu, baita proiektu horiek nola garatu ere. Gainera, ikasketa eta zerbitzu posibleak jasotzen dira bertan, baita horiek Garapen Jasangarrirako Helburuekin duten lotura ere.
- **Hirugarren zatian** ikasketa+zerbitzuko proiektuak indibidualki egitea zein aberasgarria den adierazten da, komunitatearen bitartez garapen eta hazkuntza pertsonalerako tresna baita.
- **Laugarren zatian** neurri judizialen motetan egin daitezkeen ikasketa+zerbitzuko proiektuen adibideak jasotzen dira.
- **Bosgarren zatian** ikasketa+zerbitzuko proiektu batek dituen faseak aztertzen dira banan-banan.

Espero dugu gida hau baliagarria izatea talentu indibiduala komunitatearekiko harremanaren bidez garatzeko orientabide gisa, harreman hori hazkuntza eta eraldaketa indibidual eta sozialean oinarrituta eta eraikita baitago.



2. ZUBIAK ERAIKI

Neurri judizialaren barruan planteatutako hezkuntza-helburuak betetzeko, funtsezkoa da hezitzaile bat egotea adingabeei eta gazteei haien errealitateetatik urrun dauden edo arrotz egiten zaizkien inguruneetara hurbiltzen laguntzeko. Horrela bete ahal izango dira esku-hartzeetan proposatzen diren hezkuntza-helburuak –eskolakoak, lan-aurrekoak eta lanekoak, hezkuntza psikosozialekoak, psikoterapeutikoak, aisialdikoak, familiakoak eta abar–, eta adingabe bakoitza bizitzen ari den aldaketa-prozesuan bertan proposatzen diren helburuak ere bai.

Hezitzaileak laguntzeko eta laguntza-harremana ezartzeko duen zereginetan, garrantzi handikoa da:

- Etengabe presente egotea lankidetzak ikuspegiarekin. Kontua da harreman bat eraikitzea elkarriketaren bidez hainbat gai garrantzitsua lantzeko: mugak, adostasunak eta desadostasunak, esperientziak, etorkizuna...
- Kanpoaldearekin zubiak eraikitzea, adingabeek senti dezaten haietatik arduratzen ari direla neurri judizialek haratago ere. Zubiak osasunarekin, lana bilatzearekin, auzoko elkarteekin, etab. lotutakoak izan daitezke. Oro har, hezitzaileak komunitatearekin harremanak ezartzen lagundu behar dio gazteari, gaztea hezitzailearekin –pertsona helduen erreferentzia– eraikitzen ari den harremana ingurune hurbilera zabaltzeko gai izan dadin.

Gure ustez, ikasketa+zerbitzua bide pedagogiko egokia izan daiteke, adingabe bakoitzaren aurrerabidean, ingurune hurbilean eta komunitatean aukerak sortzeko.



3. LAGUNTZEN DUTEN ADINGABEAK

“...Beharbada garrantzitsuena da jabetzea une honetan jokabide oldarkor, bortitz edo urratzaile horiei ematen dizkiegun erantzunak garrantzi handikoak direla eta, agian, aukera pribilegiatueta bat”.

(ESTALAYO, 2011)

Egoera honetan dagoen adingabe bakoitzari bidelaguntza ematea aukera ona da haren gaitasunak agerian gera daitezen neurri judizialaren testuinguruan eta testuinguru horretatik kanpo. Horrela, jasotzen duen pertsonaren rola utzi eta eman dezakeen pertsona bihurtzen da. Gainera, emate hori eraginkorra da eta beraren ingurunean gertatzen da eta, horrela, jardunbide hezitzaile bihur daiteke, prebenitzeko eta erreparatzeko potentzial handia baitu.

Kasu askotan, nerabezaroaren eta helduaroaren arteko prozesu honetan, neska-mutil horien iruditerian honelako ideiak egon daitezke:

- Sozializazioko eta normalizazioko zenbait testuingurutatik baztertuta sentitzea, hala nola eskolatik.
- Etorkizunerako orientaziorik ez izatea, pentsatzea egunean-egunean bizi behar dela, etorkizuna zalantzazkoa delako. Ideia hori indartu egiten da lehen mailako ikasketetan porrot eginez gero eta etorkizunari begira lan perspektibarik eduki ezean.
- Lehen ikasketetan porrot egitea eta eskola goiz uztea: hainbat ikerketak (FERNÁNDEZ eta RODRÍGUEZ, 2008; MARTÍNEZ-NOVILLO, 2015) baieztatzen dute zenbat eta txikiagoa izan estatus sozioekonomikoa, orduan eta ohikoagoa dela egoera hori. Beraz, horrek pobreziatik eta bazterketatik ateratzeko ezintasunaren ideia sendotzen die.
- Zoriontasuna erantzukizunik eta ardurarik ez izatea dela ulertzea eta helduen munduan sartzea ahalik eta gehien atzeratzea.

Kalteberatasun sentipen hori are sakonagoa izan daiteke neurri judizial bat ezarri gero, baina aldatu ere egin daiteke, baldin eta gazteak bere gaitasunak, ikaskuntzak eta balioak komunitatera hedatzen baditu, herritar aktibo moduan gizartearen parte hartuz.

Ikuspegi horrek berriz ere garamatza ikasketa+zerbitzura: gazteari laguntza eskatzen zaio (ñabardura garrantzitsua) komunitatean guztion onerako ekarpena egiteko.

Ikasketa+zerbitzua esperientziaren bidez, printzipioz modu pertsonalean eragiten ez dieten premiak antzemango dituzte, eta kanpotik aztertzeaz gain, esku hartu eta ekintzara pasatuko dira. Dinamismo pedagogiko horren bidez, sentimendu biziak sentituko dituzte: komunitatearen esker onak eragindakoak, komunitateko kide sentitzeak eragindakoak, hainbat ingurunerekin sortutako loturek eragindakoak... Sentimendu horietan oinarrituta, baliteke jokabide-kodeak eta errelato alternatiboak sortzea, euren balioak berrestea eta ahalduntzea.

Komunitatean eta komunitatearekin lan egitea lagungarria izan daiteke beste esparru batzuetan ere esku hartzeko: familian, eskolan, lanean... Izan ere, bitartekotzarako, erreparaziorako eta adiskidetzarako, eta adingabearen gizarteratze osorako bidea dela uste dugu.



4. IKASKETA+ZERBITZUA, NEURRI JUDIZIALAK DITUZTEN ADINGABEENTZAKO GIZARTE-HEZKUNTZAKO PROPOSAMENA

Behar den prozesu inklusiboa eta sozializatzailea bultzatzen duten hezkuntza-neurriak askotarikoak izan daitezke. Egiteko horretan modu positiboan laguntzen dute ondo artikulatutako proiektuek, lankidetzako ikaskuntzak eta ikasketa+zerbitzuko proiektuek, besteak beste.

Gida honetan metodologikoki ikasketa+zerbitzuaren alde egiten dugu; uste dugu proposamen hezitzaile egokia dela, beste proposamen batzuekin uztartuta, adingabe bakoitzarekin modu integralean lan egiteko.

Zer da Ikasketa+zerbitzua?

"Ikasketa+zerbitzua hezkuntza-proposamen bat da. Ikasteko prozesuak eta komunitateari zerbitzua emateko prozesuak uztartzen ditu ondo antolatutako proiektu bakar batean. Proiektu horretako parte-hartzaileek ingurune benetako beharrianetan lan egiten dute, ingurune hori hobetzeko helburuarekin". (*Centre promotor d'Aprenentatge Servei*)

Izenak ondo adierazten duen bezala, ikasketa+zerbitzua (IZ) bi elementuren emaitza da: ikasketa eta zerbitzu solidarioa.

Bat egitean, bakoitzaren eraginak areagotzen dituen errealitate berri bat sortzen dute:

- **Ikasketak zerbitzua hobetzen du.** Ikasten dena ekintza moduan transferitu daiteke eta komunitateari kalitatezko zerbitzua ematea ahalbidetzen du.
- **Zerbitzuak ikasketa hobetzen du.** Ikasketa motibatzen du eta zentzua ematen dio, bizi-esperientzia eranstean dio eta ikaskuntza berriak ahalbidetzen ditu.

IZren definizioak zenbait printzipio pedagogiko ditu:

- Esplorazioa, ekintza eta gogoeta dira ikasketaren oinarriak eta ezagutza aplikatzea garrantzitsua da.
- Balioetan hezteak egoera arazotsuetatik abiatzea eta erronka horiei esperientzia zuzenetik aurre egitea dakar, adimenak eta kultura moralak ematen dizkiguten tresnen bidez.
- Herritartasunerako hezkuntza parte-hartze aktibo, arduratsu, kooperatibo eta solidarioan oinarritu behar da, gizartea hobetzen laguntzeko.

Ikasketa+zerbitzua neurri judizialaren barruan

Kasu askotan, gure bidelaguntza hartzen duten adingabeek ez dute aukerarik izan beste jokabiderik praktikan jartzeko. Horregatik, jokabide horiek moldatzeko, bestelako inguruneak eta testuinguruak sortu behar dira eta esperientzia berriak eskaini, hezkuntzan eta gizartean.

Horregatik diogu ikasketa+zerbitzua ikaskuntzaren filosofia bat dela, gizarte-errealitatean eragiteko izaera pedagogiko eta sozialeko hezkuntza-proposamena delako. Tokian tokiko garapen jasangarriari lagundu nahi dio eta hainbat alderdi indartu: arazoen konponketa, talde-lana, komunikazioa, sormena, ekintzailetza, balio solidarioei buruzko hezkuntza, herritartasun gaitasunak, autoestimua eta prosozialitatea (beste pertsona batzuei mesede egiten dieten eta gizartearentzat onak diren portaeren multzoa).

Ikuspegi horretatik, aktibismoaren aurrean GOGOETA indartzen da. Egiten eta ikasten denari buruz gogoeta egiteak garrantzia ematen dio prozesuari bere osotasunean. Esperientziak zentzua izan dezan beharrezkoa da kontzientzia hartzea: zer egiten den, zergatik egiten den, nola bizi izan den.

Balioa ematen zaie gaztearen interesei (zer ikertu nahi duen, zer pentsatzen duen...); arreta zuzena ematen zaio benetako esperientziak bizitzeari, partaide izatearen sentimenduari (mundua, auzoa, eskola...) hainbat ikuspegitik; ekitate sentimenduari (hau da, egiten dugunari zentzua eman eta itsasargia izan, inguru hobea sortzen laguntzeko).

Ikasketa+zerbitzuan parte hartzen duten pertsonak balioak ikasten dituzte jardueraren urrats bakoitzean. Prozesu horren ondorioz, balio horiek bertute pertsonal bihurtzen dituzte, jokabide eta gaitasun edo konpetentzia. Gero eta hobeto menderatzen dituzte eta hainbat egoeratan aplikatzen dituzte.

Ikasketa+zerbitzuko proiektu bat neska-mutil horien gaitasuna eta etorkizuna bideratzeko iparrorratza izan daiteke.

1. **Protagonismo aktiboa:** jardueraren protagonistak neska-mutilak, nerabeak edo gazteak, helduak eta adinekoak dira, hezitzaile talde formalek edo ez-formalek lagunduta.
2. **Zerbitzu solidarioa:** komunitate baten benetako eta sentitutako premiei erantzutera bideratua. Jarduera zehatzak planifikatzen dira, protagonisten adinari eta gaitasunei egokituak eta mugatuak, komunitateko arazo espezifikoak konpontzen laguntzera bideratuta.
3. **Nahita planifikatutako eta jarduera solidarioari lotutako ikasketak:** proiektuak modu esplizituan antolatzen du curriculum-edukien, oinarritzko gaitasunen eta bizitzarako gaitasunen ikasketa, bai hezkuntzako erakundeen kasuan, bai gizarte-erakundeen kasuan.

XUS MARTÍNEK (2018) Ikasketa+zerbitzua indartzen duten 5 gako biltzen ditu, nerabeen talde hori gizarteratzeko estrategia gisa:

1. Besteei zerbait positiboa emateak norberaren gogobetetasuna eta ongizatea dakartza eta nerabeari bere buruaz duen kontzeptua hobetzen laguntzen dio.
2. Gizarte-erakundeekiko harremanak soziabilitatea garatzen du eta ingurunearekiko pixkanakako deskonexioa eta gazteek pairatzen duten isolamendu-egoera geldiarazten ditu.
3. Zerbitzu-ekintzak gaitasun eraldatzailea sustatzen du eta ingurunearekiko jarrera pasiboa aldatzera gonbidatzen du, gazteen ekimenaren bitartez.
4. Gazte hauek ikasketa+zerbitzuko jardueretan parte hartzeak bazterketa arriskuan dauden taldeei buruz herritarrek dituzten aurreiritziak hausten ditu.
5. Ikasketa+zerbitzuak sortzen dituen bizipenek aukera ematen diete nerabeei bizi-proiektuak diseinatzen hasteko, bazterketatik urrun.

El Aprendizaje-Servicio ayuda a generar espacios e itinerarios educativos que fomentan una nueva oportunidad para los chicos y chicas.

5. NOLA GARATU IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTU BAT?

Helduen zeregina nerabeez arduratzea da (FUNES, 2010) eta **arduratzea hezte**a da. Hasteko, nerabezaroa kudeatzen laguntzen zaie: nerabezaroan kokatzen, beren burua ulertzen, inguruan gertatzen den gutzia modu egokian kokatzen.

Ikasketa+zerbitzuko proiektu batek eskaintzen duen egoera baliagarria izan dakieke:

El escenario que ofrece un proyecto de Aprendizaje-Servicio, puede servirles para:

- Ikasteko aukerak eta beren bizitzetan harremanak izateko aukerak sortzeko.
- Bizi dutenetik ikasteko.
- Arriskuak autonomiaz kudeatzeko behar dutena eskuratzeko eta indartzeko.

Ikasketa+zerbitzua testuinguru ezin hobea izan daiteke nerabeek erabilgarritasuna aurkitzeko prestakuntza prozesuan egiten ari direnari, gaitasunik ezkutuena aurkitzeko, beste bide batzuk egiteko prestakuntza maila egokia lortze aldera, gizartetik baztertuta ez sentitzeko eta ahalduntzeko familien (oso garrantzitsua) eta, oro har, komunitatearen onarpenaren bidez.

Horrek aukera ematen die neska-mutil horiei:

- **Beren komunitatean premiak antzemateko:** fase hau ahalduntzearen hasiera da, hurbilen duten komunitatea nola dagoen ikusteko fasea baita. Errealitatea azter dezakete eta identifikatu non dauden hobetu ditzaketen egoerak, banaka eta talde gisa dituzten gaitasunak batuta. Abiapuntu hau berria da. *"Beste arazo batzuetara irekitzea oso esperientzia hezigarria da biktima eta galtzaile kontzientzia argia duten gazteentzat". "Bestearen minak norberari eragiteak eta laguntzera bultzatua sentitzeak agerian uzten du nerabe gehienek bizi duten bazterkeria-egoera itzulgarria dela"* (MARTÍN, 2017).

- **Komunitatearentzako zerbitzua zehazteko:** aurreko fasean gera litezke eta premia antzeman besterik ez. Baina Ikasketa+zerbitzuko proiektuek besteen premiekiko konpromisoa hartzera eramango dituzte neska-mutil horiek. Gainera, konpromiso horrek eragin argia izango du ingurunean eta haiek ere esperimentatu eta sentituko dute eragin hori . *"Planifikatzeko, ideiak proiektatzeko eta antolatzeeko esperientzia berria da nerabeentzat, kanpoko eskaerei obeditzera edo desobeditzera ohituta baitaude. Gertatzen denaren protagonista izatea hartu ohi ez duten rol bat da"* (MARTÍN, 2016).
- **Zerbitzua ondo bete dadin ikasteko:** nerabe horietako batzuek porrot egin dute eskolan, eta, horregatik, horrekin zerikusia duen oro gaitzesten dute. Eduki akademikoak beren bizitzetatik urrundu dituzte, gaitasunik ezaren sentimendu handia dutelako. Gazte hauentzat hauxe da erronkarik handienetako bat. *"Ikasketa+zerbitzuak jakintzarekiko bestelako erlazioa proposatzen die, orain arte bizi izan dutena ez bezalakoa. Zer ikasi duten, nola ikasi duten eta zertarako balio izan dien hausnartzea funtsezkoa izan daiteke beren maila akademiko baxuari aurre egiteko etsipenari buelta emateko"* (MARTÍN, 2018)
- **Gizarteratzeko, zerbitzua jasotzen duten erakunde edo pertsonekin koordinatzearen ondorioz:** ezartzen den harremanean nerabeek elkarriketa, jokabide, elkarlan eta aitortza berriak topatzen dituzte, beren familian eta inguruan izaten ez dituztenak. *"Bizi duten pobrezia-egoerara egokitzeko prozesuak esperientzia kritikoak behar ditu, gazteak astinduko dituzten bizipenak. Ikasketa+zerbitzuko jarduerak horrelako esperientziak izan daitezke"* (MARTÍN, 2018).



6. ZER IKASKETA?

Ikasketa+zerbitzuko proiektuen egoera pribilegiatutik gazteek ikasten dutenak baliagarritasun handia du:

- **Ikastea bizkortzen** lagundu dezake eta beraz, egokia da neska-mutil horiek eskolan arrakasta izan dezaten eta beren adinari dagokion gaitasun maila lortu dezaten. Horri esker, hezkuntza arautuko ikastetxeetara berdintasun egoeran itzuli ahal izango dira. *"Ikasketa+zerbitzua oso lan-metodo eraginkorra da, neska-mutilek zentzua aurkitzen baitiote ikasten ari direnari"* (BATLLE, 2012).
- Zerbitzuan hainbat ikaskuntza praktikan jartzeak norberaren **prestakuntza- eta lan-ibilbidea bideratu eta lantzen du**. *"Lan konplexua da gazte horiei laguntzea zer izan nahi duten, bizitza nola bete nahi duten pentsatzen, eta, azken batean, etorkizuna ilusioz eta errealismoz proiektatzen, eta lan hori egiteko hausnarketarako espazioak baino zerbait gehiago behar da. Erronkak ingurune egokia diseinatzea eskatzen du, gazteek beren burua aurkitu dezaten orain arte izan duten roletik haratago"* (López-Doriga eta MARTÍN, 2018).
- Ikaskuntza horiek **gizarteratzen** laguntzen dute; laguntzen dietelako, batetik, beren burua eta ikasteko gaitasuna onesten eta, bestetik, besteekin elkarlanean komunitateko kide moduan onartuak sentitzen. *"Ikasketa+zerbitzuak hezkuntza-aukera izan behar du ikasle guztientzat. Hezkuntza-bizitzako uneren batean, herritar aktibo gisa parte hartzeko aukera izan behar dute eta auzoaren, bizilagunen eta gizartearen hobekuntzaren alde zerbait egin"* (URUÑUELA, 2018).

Orain ikus dezagun zein diren ikaskuntza horiek eta nola laguntzen duten XXI. mendeko hezkuntzaren erronkak osatzen dituzten 4 ardatzak modu esanguratsuan indartzen (DELORS, 1997):

1. Ezagutzen ikasi
3. Izaten ikasi

2. Egiten ikasi
4. Elkarrekin bizitzen ikasi.

Eta ardatz horien barruan daude etengabe ikasteko funtsezko gaitasunak.

6.1. Ezagutzen ikasi

Ikasketa+zerbitzuko proiektuek aldaketa kognitiboak izaten eta inguratzen gaituen mundua ulertzen lagundu dezakete, **memoriaren**, **pentsamenduaren** eta **arretaren** entrenamenduaren bidez. Gainera, ikasketa mota hauek hurbilagoak eta atseginagoak dira:

- Oroimen asoziatiboa entrenatzea, prozesu osoan -zerbitzua planifikatzen denetik burutzen den arte- bizitako esperientziak sortuko dituen aukera ugariak aprobeztatuz.
- Pentsamendu mota desberdinak lantzea, adibidez, pentsamendu kritikoa, prozesuan zehar sortuko diren arazoak, kezak eta gatazkak modu positiboan identifikatzea eta berriz ebaluatzea.
- Proiektuetako zerbitzuak antolatzerakoan inguruko gizarteko premiak ikertzeko gaitasuna garatzea eta ikasteko eta jakiteko gogoia piztea.
- Bizitzan zehar ikasten jarraitzea ahalbidetzen duten oinarriak eraikitzen laguntzea, bai eskolan, bai lan-arloan.
- Zerbitzuari lotutako curriculum-ikasketak, prozesu akademikoan aurrera egiten lagunduko dietenak, gehiago ikastea, ikasketekin jarraitzea eta etengabe prestatzea errazten dutelako:
 - **Hizkuntzaren bidezko komunikazioa:** ahoz eta idatziz komunikatzea. Norberaren argudioak zuzen adieraztea, testuinguruaren arabera, beste pertsonetikiko harremanetan elkarrizketa konstruktiboa eginez, esate baterako, beste talde bateko pertsonekin, gizarte-erakundeekin, arduradun politikoekin, hau da, askotariko pertsonekin. Proiektu osoan zehar nola hitz egiten dugun eta besteei nola entzuten diegun jabetzea, horrek eragina baitu pertsona horiengan.
 - **Matematika gaitasuna:** eguneroko egoeretan oinarritzko prozesu matematikoak aplikatzeko gaitasuna garatzea zerbitzua antolatzean eta gauzatzean.
 - **Gaitasun digitala:** tresna informatikoak erabiltzeko gaitasuna entrenatzea, informazioa modu sortzaile eta berritzailean ekoitzi eta aurkeztu ahal izateko. Halaber, modu seguru eta arduratsuan parte hartzeko helburu sozial edota profesionalak dituzten komunitate eta sare digitaletan.

6.2. Egiten ikasi: gaitasun teknologikoa, ikasten ikastea, ekimen sena eta enpresa espiritua

Garrantzitsua da eskola-atzerapen handia duten eta eskola uzteko gogoia duten nerabeak **lan-aurreko**

Hezkuntzako adituak, administrazio publikoak eta enpresaburuak ados daude lan-merkatuan hain goiz sartzea ez dela egokia. Gutxieneko eskola-arrakasta ez lortzeak gazteen bazterkeria- eta marjinaltasun-arrisku handia dakar. Paradoxa da neska-mutil ahulena direla lan-merkatuari aurre egiten lehenak (LONGÁS ETA RIERA, 2011).

Ikasketa+zerbitzuak ikasteko espazio egokiak sortzen ditu haientzat, praktikan jar baititzaizkete jaso dituzten curriculum-ezagutzak; izan ere, ematen duten zerbitzuak prestakuntza teknikoa eta profesionala eskatzen du. Horrez gain, lan-esperientziatik oso hurbil dagoen egokitzapena ere bada, eta aukera ematen die berariazko gaitasunak entrenatzeko eta aldatzeko itxaropenak sortzeko, enplegura eta lan munduan sartzeko beharrezko prestakuntzara zuzenduta.

Eta **egiten ikastearen** barruan, zein dira ikaskuntza horiek?

- Ikasten ikastea:

- Proiektuak egiteko gaitasuna indartzea, ekimena, sormena eta denboren plangintza abian jarritz.
- Talde-lanean aritzeko gaitasuna indartzeko ohiturak hartzea: komunikazioa, lan-agindua betetzea, arauak eta aginte irudiak onartzea, eta ezarritako txandak errespetatzea.
- Eguneroko bizitzarako eta lanerako ohiturak garatzea: higieena eta norberaren irudia, ordena eguneroko ordutegietan atseden egokia errespetatuta. Hainbat zeregin egitea: norbere burua garbitu, espazioak txukundu, arropa garbitu...
- Hitzemandako zerbitzuekiko konpromisoak betetzen trebatzea.
- Norberaren eta besteen lana ebaluatzeko trebetasunak lortzea. Aholkuak ematea eta hobekuntzak eta konponbideak proposatzea, egindako zerbitzuak ematean eskatzen diren kalitate-estandarrak lortzeko.
- Konfiantza izatea eta motibatzea, ikasketa+zerbitzuko proiektuaren prozesu osoa hasi eta amaitzeko, horrek norberaren prozesuan eta bizitzan dakarren guztiarekin: bizitzan "proiektu bat hasi eta amaitzea".

- Gaitasun teknologikoa:

- Hainbat lan-eremutako prestakuntza, zerbitzuaren arabera, lanbide-orientazioa lantzeko baliagarria.
- Laneko babes-ekipamenduetara eta zerbitzuaren zeregin bakoitzerako beharrezko tresna teknologikoetara ohitzea. Haien erabileraz eta mantenuaz arduratzea.
- Proiektuaren garapenean jarraitu beharreko prozesuari buruzko erabakiak hartzea eta erabaki horiek hartzeko arrazoibidea azaltzeko gai izatea.
- Ikasketa+zerbitzuko proiektuaren prozesu osoan segurtasuna eta jasangarritasuna gogoan izateko kontzientzia hartzea.

- Ekimen-sena eta enpresa-espirtua:

- Ikasketa+zerbitzuko proiektua egitean sortzen diren lan-orientazioko aukerez konturatzea, bai eta heziketa- eta lan-ibilbide horrek behar dituen prestakuntza-premiez ere.
- Ikasketa+zerbitzuko proiektua egitean, zenbait gaitasunen garrantziaz jabetzea: lidergoa, negoziazioa, erabakitasuna...
- Lana eta lanbide-aukera berriak bilatzeko baliabideetan trebatzea.

6.3. Komunitatean bizitzen ikasi: gizarte eta herritar gaitasunak, kultur kontzientzia eta adierazpenak

Adingabeen Erantzukizun Penalari buruzko 5/2000 Lege Organikoak 8 printzipiotan oinarritzen du bere esku-hartzea. Komunitatea da garrantzitsuenetako bat.

Ikasketa+zerbitzuak lan komunitarioaren agertoki pribilegiatua eskaintzen du, aukera ematen baitu baliabide egokiak aktibatzeko elkarrekin bizitzen ikasteko eta ikasitako jokabide horiek bizitzako beste espazio batzuetan erabiltzeko.

Horregatik, beharrezkoa da komunitate-lana dakarten metodologiak erabiltzea, adingabeek gizarte-laguntzarik ez dutela eta ingurunean ongizatea sortu ezin dutela pentsa dezaten prebenitzeko.

Zerbitzuaren bidez, Komunitateak honako ikaskuntza hauek gara ditzake:

- Gizarte eta herritar gaitasuna:

- Konfiantza sortzea gizarte-ingurunean eta helduengan.
- Aldaketarako motibazioa sustatzea.
- Harreman-modu alternatiboak bultzatzea, harreman-agertoki berrien bidez.
- Norberaren gaitasunez eta erantzukizunez jabetza, komunitatetik jasotzen duten aintzatespenaren eta mezu alternatiboen ondorioz.
- Kanporako eta komunitaterako bidean aurki ditzaketen zailtasunei aurre egitea.
- Konfiantzarako, erabilgarritasunerako, besteak zaintzeko, zainduta sentitzeko eta enpatiarako dituzten gaitasunak ezagutzea.
- Proiektu osoan zehar sortzen diren gatazkei aurre egitea eta konpontzea.
- Gizartean eginkizun aktibo eta eraikitzailea garatzea eta beren ahalmen solidarioa piztea.
- Besteen balioak eta intimitatea errespetatzea komunitatearen kohesioa bermatzeko faktore garrantzitsua dela jakinda.

6.4. Izaten ikasi

Oinarri hau da beste hirurak lotzen dituen ardatza: ezagutzen ikastea, egiten ikastea, elkarrekin bizitzen ikastea. Ikaskuntza horiek eragina dute neska-mutil horien identitatearen eraikuntzan, bizitza osoan zehar garatzen baita.

Ikasketa+zerbitzuak, sortzen dituen ikastokien bitartez, honako hauek ahalbidetzen ditu:

- Adingabeen berezko baliabideak sustatzea, berdintasun-egoeretan aldatzeko motibazioa landuz eta gaitasunak martxan jarriz.
- Proiektuaren fase bakoitzeko autoebaluazioan arduratsua izatearen gainean hausnartzea, akats bera berriro ez egiteko.
- Emozioak eta jokabideak lantzea eta besteengan duten eragina aztertzea.
- Gizartean moldatzeko ikasbideak bultzatzea.
- Norberaren heldutasuna bultzatzea eta estrategia gehiago eskaintzea proiektuaren eta komunitatearen barruan hainbat egoerari aurre egiteko.

- Ingurune hurbilenarekin eta komunitatearekin harreman positiboagoak errotzea.
- Ongizate psikologikoa areagotzea: independentzia eta balio pertsonala sustatzea.
- Honako hauek indartzea: konpromisoa, erantzukizuna, ahalegina eta jarraitutasuna, frustrazioarekiko tolerantzia...



7. ZER ZERBITZU?

“Prebentzioa: eskola-porrota murriztea eta eskolatik lanera ondo igaroko direla ziurtatzea helburu duten ekintzen multzoa. Batez ere bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egiten dira, ahal dela ikasleek 16 urte bete baino lehen, baina ildo horretako beste zerbitzu eta erakunde batzuen ekimenak ere badaude, ikastetxeetako gain. Baliabide mota horien adibideak dira aniztasunari arreta emateko ekintzak, hala nola eskolatze partekatuko edo Zerbitzu-Ikasketako esperientziak; berariazko orientazioa, eskola-curriculumean sartzea, lanbide-aurreko eta enpresa-mundua ezagutzeko prestakuntza, familiekin eta komunitatearekin lan egitea”. (LONGÁS Y RIERA, 2011).

Hona hemen ikasketa+zerbitzuko proiektuen barruan **komunitateari zerbitzuak** emateko zenbait gomendio, **bi ikuspegi nagusirekin**:

1. Prebentzioa eta babesa: ikasten eta sortzen doazen jokabideak bizitzako beste espazio batzuetara eraman ahal izatea. Era berean, gizarte-premiei emandako erantzun egokiak, hau da, ingurunea hobetzen dutenak, aintzat hartzea eta balioestea.

2. Jasangarritasunerako funtsezkoak diren zeharkako gaitasunak garatzea: gazteek komunitatean duten protagonismoa sustatzea, ekintzaren, lankidetzaren eta loturak sortzearen bidez.

Hauek dira 4 ardatzetako bakoitzaren gaitasunak:

- **Ezagutzen ikasi:**

- Pentsamendu sistemikorako gaitasuna: gure ingurunean gertatzen diren harreman eta elkarreraginei antzematea.
- Aurrea hartzeko gaitasuna: gure inguruko egoera ulertzeko eta ebaluatzeko trebetasuna.

- Arauetarako gaitasuna: gure ekintzaren atzean dauden arauak eta balioak buruz hausnartzea.

• **Egiten ikasi:**

- Estrategia-gaitasuna: zerbitzua bera eta komunitatean duen eragina planifikatzeko orduan.
- Arazoak ebazteko gaitasuna: ekitatea bermatuko duten aukerak pentsatzea.

• **Elkarrekin bizitzen ikasi:**

- Lankidetzeta-gaitasuna: besteak ulertzea eta errespetatzea.

• **Izaten ikasi:**

- Pentsamendu kritikorako gaitasuna: zalantzan jartzeko trebetasuna.
- Auto-kontzientziarako gaitasuna: norberak komunitatean duen rolari buruz hausnartzea.



Zerbitzu horiek 4 ebaluazio-eremu izan ditzakete:

- Adingabeak kanpoko nola zaintzen duen, bere prozesu pertsonalaren eta erantzukizun-prozesuaren oihartzun gisa.
- Ikaskuntza tekniko edo profesionalen kalitatea, zerbitzua emateko orduan.
- Zerbitzuak komunitatean duen eragina, hainbat mailatan.
- Jasangarritasunaren sustapena zerbitzuen bidez eta Garapen Jasangarrirako Helburuei (GJH) egiten dieten ekarpena.

Zerbitzu-eremuak

1. Ingurumena babestea, zaintzea eta berreskuratzea

Honelako zerbitzuak toki pribilegiatuak dira gazteekin ingurune irekian esku hartzeko. Adibidez: bide berde zahar bat berreskuratzea, mendian iturri zahar bat berreskuratzea, birziklatzearekin lotutako ekintzak...

GJHak kontuan hartuta **lor daitezkeen ikaskuntzak:**

- **Ezagutzen ikasi:** Goseari eta malnutrizioari aurre egiteko nekazaritza jasangarria beharrezkoa dela ulertzea. Laborantza jasangarria sustatzeari dagokionez, komunitatearen eta norberaren balioei buruz hausnartzeko gaitasuna garatzea.

Ura bizitzako funtsezko elementua dela jabetzea eta uraren kantitatea eta kalitatea zaintzea garrantzitsua dela ulertzea. Ingurune hurbileko habitata kontserbatzeko, berritzeko eta hobetzeko estrategiak ulertzea.



- **Egiten ikasi:** Zerbitzuarekin ekoizteko eta kontsumitzeko moduak aldatzen laguntzea. Hurbilen dituzten komunitateetan uraren kudeaketa hobetzea, egindako zerbitzuaren bidez. Energiaren efizientziaren eta nahikotasunaren beharra defendatzea. Hurbilen duten komunitatearentzako energia berriztagarriko estrategiak sortzea. Klima-aldaketak hainbat mailatan duen eragina eta klima-aldaketari laguntzen dioten giza dinamikak azaldu ahal izatea.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** komunitateko biodibertsitatea kontserbatzen diharduten gertuko taldeekin elkarlanean aritzea.
- Klima babesteko **ekimenak sortu edo lagundu.**
- **Izaten ikasi:** Banakako bizimoduak gure komunitatearen garapen sozialean, ekonomikoan eta ingurumenekoan nola eragiten duen ulertzea. Bizimodu jasangarriak ikustea.

2.2. Bakearen eta indarkeriarik ezaren aldeko balio positiboak sustatzeko zerbitzuak

Bizikidetzako eta errespetuko jarrera positiboak bultzatzeko, gatazkak konpontzeko, negoziatzeko eta bitartekaritzarako estrategia baketsuak sortzeko. Estrategia horiek hezkuntza formalaren (ikastetxeak) eta informalaren (gatzetxeak, elkartek) eremuetan sozializatu daitezke.



Lor daitezkeen ikaskuntzak:

- **Ezagutzen ikasi:** *Justizia, inklusioa eta bakea* kontzeptuak eta legearekin eta giza eskubideekin duten harremana ulertzea.
- **Egiten ikasi:** Gatazkak konpontzen laguntzea norberaren komunitatean edo ingurune hurbilenean.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** Bakea eta justizia sustatzen lagundu dezaketen beste pertsona batzuekin eta bidegabekeria-egoerak jasaten ari diren taldeekin lankidetzan aritzea.
- **Izaten ikasi:** Kontzeptu horietan (bakea, justizia...) orain arte izan duten zereginari eta aldaketarako motibazioari buruz hausnartzea. Bidegabekeriak jasaten dituztenekiko enpatia eta elkartasuna adieraztea..

3. Genero berdintasunerako zerbitzuak

Kanpainak komunikabideetan, zainketekin lotutako zerbitzuetan, adinekoen egoitzetan, haurren zaintzan... aurrez ezarritako genero-rolak hausteko.



Lor daitezkeen ikaskuntzak:

- **Ezagutzen ikasi:** Generoa, genero berdintasuna eta genero diskriminazioa kontzeptuak eta haien identitatea eta posizioa ulertzea.
- **Egiten ikasi:** Haien inguruan dauden genero diskriminazio moduak identifikatzea eta salatzea.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** Beste pertsona batzuekin lankidetzan aritzea indarkeriaren eta genero desberdintasunaren praktikak murriztu ahal izateko.
- **Izaten ikasi:** Genero diskriminazioa identifikatzeko gaitasuna garatzea eta genero-identitateari eta genero-rolari buruz hausnartzea.

4. Hezkuntza formalerako zerbitzuak

Ikastetxe barruko konponketak, jolastokien diseinua, tailer hezigarriak egitea... Neska-mutil horiek hezkuntza formalaren testuingurura hurbiltzea bilatzen da, espazio horietara itzultzea, prestatzeko eta laneratzeko estrategia gisa.



Lor daitezkeen ikaskuntzak:

- **Ezagutzen ikasi:** Bizitzan zehar kalitateko hezkuntza jasotzeak duen garrantzia ulertzea, desberdintasunak eta bazterkeria murrizteko tresna gisa.

- **Egiten ikasi:** Hezkuntza sustatzea, gazteak ahalduntzeko tresna gisa.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** Beste pertsona batzuk motibatzea eta ahalduntzea, hezkuntza-aukerak eskatu eta aprobetxatu ditzaizen.
- **Izaten ikasi:** Ibilbidean zehar sortzen diren prestakuntza-aukerak guztiez baliatzeko gaitasuna.

5. Nerabeen artean jokabide arriskutsuak gutxitzeko zerbitzuak

Nerabeen arteko asoziazionismoa sustatzea, gizarte-trebetasunen tailerrak, talde problematikoen eragina lantzeko eta aisialdi osasungarriko beste aukera batzuk eskaintzeko. Ekintza horiek osasunaren eremura ere bideratuta egon daitezke, adikzioetara zehazki, gai hori hezkuntza formalean zein ez-formalean lantzeko.



Lor daitezkeen ikaskuntzak:

- **Ezagutzen ikasi:** Osasunaren eta ongizate fisiko eta mentalaren kontzeptuak ezagutzea eta ulertzea.
- **Egiten ikasi:** Osasuna eta ongizate fisiko eta mentala sustatzeko prebentzio-estrategiak bultzatzea. Estrategia horietan sexu eta ugalketa-osasunarekin lotutakoak ere sartzea.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** Beste batzuk motibatzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko gaitasuna, guztion aldeko jarduerak osasungarriak zabaltzeko, erabakitzeko eta dinamizatzeko.
- **Izaten ikasi:** Eguneroko dinamikan norberaren osasuna sustatzen duten ohiturak sartzea. Osasunarekin lotutako balioak, sinesmenak eta jarrerak barneratzea.

6. Hiri-ondarea zaintzeko zerbitzuak

Bide-segurtasunerako zerbitzuak, komunitatean toki inklusiboak eta seguruak sortzeko behar diren konponketak egiteko.

Lor daitezkeen ikaskuntzak:

- **Ezagutzen ikasi:** Ingurune fisikoak giza premia fisiko, sozial eta psikologikoak nola asetzen dituen ulertzea. Gure ondare kulturala ezagutzea. Toki fisiko jasangarriagoak izateko beharra ulertzea.
- **Egiten ikasi:** Komunitateak sortutako tokietan azpiegitura inklusiboak eta iraunkorrak konpontzen, ebaluatzen eta eskatzen parte hartzea.



- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** Toki seguru, inklusibo eta jasangarriak sortzen ari diren beste erakunde edo talde komunitario batzuekin lankidetzan aritzea.
- **Izaten ikasi:** Jasangarritasunaren ikuspegia barneratuta, komunitatean hartzen diren erabakien alde edo aurka agertzeko gaitasuna.

7. Gizarte-zerbitzuekin lankidetzan aritzeko zerbitzuak

Adibidez, gizarte-jantokiak, bazterkeria-egoeran dauden haurrei eskola-laguntza ematea, desgaitasuna duten pertsonen aisialdian laguntzea. Zerbitzu horien helburuak bat datoz pobrezia eta despaketotasunak murrizteko helburuekin.



Lor daitezkeen ikaskuntzak:

- **Ezagutzen ikasi:** Pobreziaren zergatiak eta ondorioak ulertzea, baita oinarritzko giza beharrei eta eskubideei nola eragiten dien eta nola desberdintasunak gizarte arazoak sortzen dituen ere.
- **Egiten ikasi:** Gaitasunak garatzea inguruko pobrezia- edo desberdintasun-egoera zehatzten aurrean irtenbideak proposatzeko.
- **Elkarrekin bizitzen ikasi:** Beste batzuekin lankidetzan aritzea, pobreziaren eta desberdintasunen eragina pairatzen duten pertsonak eta komunitateak ahalduntzeko.
- **Izaten ikasi:** Desberdintasunei eta pobreziaren esanahi zabalari buruzko kontzientzia sortzea, baita enpatia sentitzea eta elkartasuna adieraztea ere.

Ikasketa+zerbitzuko proiektuen barruan neska-mutiek garatzen dituzten zerbitzuak hazteko, erreparatzeko, lan-mundurako eta esparru akademikorako prestatzeko eta komunitatearekiko rola aldatzeko aukera dira.



8. NEURRIRA EGINDAKO IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUAK?

Kontua da nola bateratu daitezkeen talde-jarduerak eta banakako neurriak. Izan ere, ikasketa+zerbitzuko proiektuak taldean egiten dira, dela ikastetxeko gelan, dela erreferentziazko taldean, hezkuntza-aisialdiko zentro batean. Baina Gazte Justiziaren neurriak banakakoak dira beti. Hainbat modutan proposa daitezke:

- a) Talde batean parte hartzea, eskolan edo Hezkuntza-Aisialdian, nahikoa izan daiteke neska-mutil batzuentzat. Neurri sozializatzailea da, taldean lan egitekoa, ikastekoa, erantzukizunak hartzekoa, herritar kontzientzia garatzekoa eta konpromiso eraldatzailea hartzekoa.
- b) Ikasketa+zerbitzua egiten duen gazte-talde batean parte hartzea, eskola-testuinguruan edo gazteentzako zentro baten testuinguruan. Baina, kasu honetan, adingabeak ikasketen, praktiken eta hezkuntza-prozesuen banakako programa bat du, ikasketa+zerbitzuko taldean garatu beharrekoa.
- c) Gazteak Ikasketa+zerbitzuko banakako programa bat du, modu pertsonalean garatzeko: proiektu baten urrats guztiak beteko ditu, akordiotik eta bere konpromiso pertsonaletik abiatuta, eta hezitzailearen jarraipena edukiko du.
- d) Ikasketa+zerbitzuko proiektu bat garatzea barneratze-zentroaren testuinguruan, adingabe bakoitzarentzat berariazko helburuekin.

Ikasketa+zerbitzuko banakako proposamen batek arrakasta izateko, beharrezkoa da hezkuntza-laguntzako prozesuek behar bezala funtzionatzea. Proiektu horretan, urrats bakoitza tutorearekin batera egiten da, adingabe bakoitzak proposatzen dituen helburuei buruzko erabakiekin hasten da eta prozesu osoan zehar agertzen diren jomugak hartzen dira kontuan. Helburuak argiak eta ulergarriak izaki, zer proposamen egiten diren, zergatik eta zertarako egiten diren jakingo dugu. BeyebachEK² helburu horiek izan behar dituzten

2 HERRERO DE VEGA, MARGARITA y BEYEBACH, MARK (2018) *Intervención escolar centrada en soluciones. Conversaciones para el cambio en la escuela. Un manual práctico para profesionales de la educación*. . Bartzelona. Herder. Edizio digitala

ezaugarri batzuk adierazten dizkigu: gaztearentzat garrantzitsuak, txikiak eta lorgarriak, jokabide zehatzen hitzekin deskribatuak, beste zerbait hasteko planteatuak (zerbait amaitzeko edo zerbait uzteko baino) eta eskatzen duten ahalegina hautematea ahalbidetzen dutenak.

Bidelaguntza horretarako, zenbait tresna diseinatu ditugu eta egoera bakoitzaren beharretara egokitu daitezke. Ikasketa+zerbitzuko banakako proiektu batek honako osagai hauek izan ditzake:

8.1. Konpromiso pertsonalaren aurretik

Neska-mutilen interesetan sakondu, hobeto ezagutzeko nolako jarrera duten eta zenbateraino dauden prest prestakuntza-ibilbide hori ikasketa+zerbitzuko proiektu baten barruan egiteko.

MURGILDU ZEURE BAITAN: PERTSONA HAU NI NAIZ

Denok ditugu interesak, trebetasunak eta gaitasunak. Zein dira zureak?

Zer dira interesak? Zertaz jakin nahi duzun gehiago, adibidez, mugaz haraindiko espazioari buruz, herri-musikari buruz edo gertaera historiko bati buruz, Gerra Zibila kasu. Animaliak, haizea, misterioak edo urrutiko lekuak bisitatzea interesatzen zaizu? Zer beste gauza interesatzen zaizu?

Zer dira trebetasunak eta gaitasunak? Erraz edo ondo egiten dituzun gauzekin dute zerikusia. Badago asko gustatzen zaizun jarduerarik? Baduzu oso gustuko gairik ikastetxean? Abestea, saxofoia jotzea edo balleta ikastea? Hizkuntza bat baino gehiago dakizu? Ondo moldatzen zara janaria prestatzen? Baduzu lorategirik? Nahiago duzu argazkigintza pintura edo futboleko ibiltzea baino? Ba al duzu trebetasun informatiko berezirik?

Interesak: honi buruz ikastea eta pentsatzea gustatzen zait:

Trebetasunak eta gaitasunak: ondo moldatzen naiz...

Baliagarria izan naiz: deskribatu nola lagundu zenion norbaiti behin.

Laguntza jaso dut: deskribatu nola lagundu zizun norbaitek behin.

8.2. Banakako Ikasketa+Zerbitzuko proiektu bat hasteko konpromisoa hartu

Adingabeari azalduko zaio zein eratako jarduerarekin konprometitu den. Hau da, komunitateko gizarte-erakundeekin batera proiektu bat aurrera eramateko egin beharreko urratsak egiteko konprometitu dela.

Horretarako, hau egin behar du:

1. Gizarteko errealitatea aztertu: zer erakunde dauden, zertan diharduten eta jorratzen dituzten arazoan zein interesatzen zaion.
2. Lankidetzan aritzea gustatuko litzaiokeen gizarte-erakundearekin harremanetan jarri.
3. Proiektu bat sortu hezitzailearen eta gizarte-erakunde horren laguntzarekin.
4. Zer zerbitzu zehatz eman dezakeen ikusi.
5. Bere bizitzarako zer ikaskuntza baliagarri atera dezakeen identifikatu.

Konpromisoak honako formatu hau izan dezake:

IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUA EGITEKO KONPROMISO PERTSONALA

Izena:

Proposatzen dizkidaten jarduerak ezagutu ondoren, nire hezitzaileen laguntzarekin jarduera horiek egiteko konpromiso formala hartzen dut. Era berean, proiektua ondo egiteko bete behar ditudan zeregin guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dut.

Data eta sinadura:

Gazte parte-hartzailea

Hezitzailea

8.3. Komunitatearen premiak aztertu

1. urratsa:

- Sareen bidez, auzoaren, biztanleriaren eta premien berri hartu.
- Auzoko zenbait elkarterekin harremanetan jarri eta zertan diharduten eta zer jarduera egiten dituzten jakin.
- Gure komunitatean dauden premiak identifikatu. Zerrenda egin.

2. urratsa: Komunitatearen premia bat (edo batzuk) hautatu:

Zein uste duzu dela arrazoia?

Nor ari da behar hori konpontzen laguntzen?

Zein modutan lagundu daiteke?

3. urratsa:

Zer jakin behar dugu komunitatearen behar horri buruz eta laguntzen ari denari buruz? Nola jakingo dugu?

4. urratsa: Ideiak proposatu:

- Gure komunitateari laguntzeko, zer egin dezakedala bururatzen zait?
- Hori egiteko, zertaz arduratu naiteke?

5. urratsa: Aurreko atalak jasotzen dituen txosten bat idatzi hezitzailearentzat.

8.4. Zein proiektu egin erabaki

Aztertu zein proiektu hautatuko dugun. Aldeko eta kontrako argudioak bilatu eta proiektua aurrera eramateko aukerak baloratu.

Proiektuak	Alde	Kontra	Aurrera eramateko aukera

8.5. Proiektua eraiki

Adingabeak proiektua antola dezan saiatuko gara, aurretik egindako lana kontuan hartuta.

Izena:	
Hezitzailea:	
Proiektuaren izena:	
Premia Zer premiari erantzuten dio proposamen honek?	
Jomuga Nola lagunduko du proposamen honek premia asetzen?	
Parte hartzea Zein elkarte eta erakunderi lagunduko diot eta nola?	
Zer egingo dut nik?	
Zenbat denbora eskainiko diot?: Zenbat egun astean? Zenbat aste? Zein ordutegitan?	
Emaitzak Zer espero dugu gertatzea gure lanaren emaitza gisa?	
Nola egiaztatuko ditugu emaitzak? Zer froga jasoko ditugu eta nola erabiliko ditugu?	
Baliabideak Zer behar dugu lana egiteko?	

Data:

Sinadura:


Adingabea

Hezitzailea

8.6. Qué aprendizajes realizar o actualizar para el proyecto

Proiektu honetan zer ikasketa egin, errepasatu edo indartu behar dugun identifikatzen saiatuko gara. Adingabe bakoitzarekin adostuko dugu zein alderditan eragin beharko dugun (proiektuan landu beharreko bizpahiru alderdi, adibidez).

Curriculum-ikasketak	Funtsezko gaitasunak	Bizitzarako trebetasunak	Eguneroko bizitzarako trebetasunak
Curriculumeko arloak:	a) Hizkuntza-komunikazioa b) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarritzko gaitasunak. c) Gaitasun-digitala. d) Ikasten ikastea. e) Gizarte eta herritar gaitasunak. f) Ekimen sena eta izaera ekintzailea. g) Kultur kontzientzia eta adierazpenak.	1. Autoezagutza 2. Enpatia 3. Asertziozko komunikazioa 4. Pertsonen arteko harremanak 5. Erabakiak hartzea 6. Arazoak eta gatazkak konpontzea 7. Pentsamendu sortzailea 8. Pentsamendu kritikoa 9. Emozioak eta sentimenduak kudeatzea 10. Tentsioak eta estresa kudeatzea	• Higiene pertsonala • Irudi pertsonala • Jantziak • Ordena • Etxeko lanak: janaria prestatzea, garbi-ikuzia egitea, arropa garbitzea, harrikoa egitea... • Pertsonen arteko harremanak • ...



8.7. Proiektua gauzatu

Proiektua gauzatzea hausnartu ditugun ideiak martxan jartzea da.

Ekintzarako unea da.

Adingabeak taula bat egin behar du, zereginak, denborak eta moduak antolatzeko

Proiektua:			
Jarduerak:			
Zer egin	Noiz	Norekin	Zertarako
	Egunak: Orduak:	Lankidetzako erakundeak. Kontaktuak.	Jarduera bakoitzaren helburua

Taula hau hasieran sor daiteke eta jarduera bakoitzarekin osatzen joan, prozesuaren historia gisa.

8.8. Proiektua ebaluatu

Zati honetan Ikasketa+Zerbitzuko proiektuari buruzko gogoeta egingo dugu.

Lehenik, adingabeak hausnarketa pertsonala egingo du idatziz.

Ondoren, elkarriketa bat izango du hezitzailearekin, haztera eta aldaketa pertsonalera zerk eramango duen sakontzeko eta bilatzeko.

Adingabearen ikaskuntzak

Zer ikasi duzu zerbitzua egiteko prestatzean sortutako informaziotik?

Zer trebetasun garatu dituzu jarduerak eginda?

Proiektuak lagundu dizu:

- Zeure burua hobeto ulertzen?
- Auzoko beste pertsona batzuen lana, elkarteen lana hobeto ulertzen?

Nola erabil dezakezu esperientzia honetan ikasi duzuna?

Zerbitzuaren eragina

Zer premiak sortu zuen zerbitzua?

Zer ekarpen egin duzu?

Zer ekarpen egin dizu elkarlanean aritu zaren elkartek?

Zure ustez, nola eragin dio zure zerbitzuak auzoari, lagundu dituzun pertsonen...?

Prozesua

¿Nola lagundu duzu proiektuaren plangintzan?

Zein gaitan hartu dituzu arazoak konpontzeko erabakiak?

Zer desberdintasun egon dira proiektatutakoaren eta benetan egin duzunaren artean?

Zer ideia dituzu proiektuaren zatiren bat hobetzeko?

8.9. Etorkizunari begira

Prest al zaude Ikasketa+ Zerbitzuko beste proiektu bat egiteko?

BAI

EZ

ZERBAITEN ARABERA

EZ DAKIT

Orain errealitatea hobeto ezagututa, zein eremutan egin nahiko zenuke proiektu bat?

Zer egiteko prest egongo zinateke?

Zein erakunderekin lan egitea gustatuko litzaizuke?

Baduzu etorkizunerako ideia pertsonalik?

9. IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUEN HEZKUNTZA AUKERAK HAINBAT NEURRI JUDIZIALETAN

“Azken finean, errealitatean eragitea eta, apur bat baino ez bada ere, hura aldatzea da, errealitatea eraldagarria dela frogatzeko modu bakarra.” (EDUARDO GALEANO)

Argi egiaztatu ahal izan dugu lankidetzarako eta berrikuntzarako gaitasunak garrantzitsuak direla aurrean ditugun egoerei aurre egiteko. Ezaugarri horiek adingabeen eta gazteen artean sustatu behar dira: “Lankidetzan aritzeko gai diren pertsonak. Kezkatzen direnak, planteatzen zaizkien erronka eta arazoei irtenbideak bilatzen dizkietenak. Jakingura daukan jendea, azalpen bakar batekin konformatzen ez dena. Informazio gehiago bilatzen duten buru kritikoak (...) datozen garai ziurgabeei aurre egiteko prest daudenak.”³

Mundu osoak pairatu duen COVID-19aren pandemiaren bilakaerak eta konfinamenduak urruntze soziala ekarri dute. Esku hartzeko protokolo berriek komunitatearen ikuspegi berri bat sortu dute eta elkarrekin partekatzeko eta elkarri laguntzeko beharra erakutsi dute.

Hezkuntza-jarduerak egoera aldatu ahala moldatzen joan behar izan du, eta adingabeek eta hezitzaileek ikasketa-formula berriak sortu behar izan dituzte egoera berriari erantzuteko. Gizarte- eta hezkuntza-arloan egindako aldaketa horietako asko iraunkorrak izango dira.

Prozedura berri asko daude estuki lotuta elkarren zaintzaren printzipioarekin, jakinik herritar moduan eta planetarekin dugun erantzukizunaren barruan elkartasuna praktikatu behar dugula eta lotura estua dagoela elkartasunezko jokabidearen eta guztion ongiaren artean.

Abian jar daitezkeen proiektuetan, bai hezitzaileentzat, bai adingabe eta gazteentzat, printzipio bat dugu gidari: gizarte-premiaren, komunitatearentzako zerbitzuaren, ikaskuntzen eta aliantzen arteko harremana.

³ GONZÁLEZ ARES, VICTORIA. “La educación en tiempos de confinamiento”. Tiempo de Canarias, 2020ko apirilaren 5ean.
<https://tiempodecanarias.com/opinion/planeta/educacion-en-tiempos-de-confinamiento>

Sareko lan horrek, aliantzak, aukera ematen digu sakon hausnartzeko komunitate bateko kide izatearen sentimenduari buruz: zein garrantzitsua den komunitatearekin balioak eta erantzukizunak partekatzea eta herritar aktibo gisa gizartea eraldatzen ahalegintzea.

Barneratze-aldi baten ondoren, nerabeak lotura berriak aurkitu behar ditu bere komunitatearekin, harreman afektibo osasungarriak ezartzeko eta herritar aktibo gisa hainbat helburu lortzen laguntzeko: gure ingurunea modu parte-hartzailean edertzea, auzoko bizilagunekin eta erakundeekin harremanak sendotzea, gure komunitateko bizikidetza hobetzen laguntzea. Emozioen bidez konektatuz gero, gizarte- eta hezkuntza-prozesuak aurrera joango dira. Bada, ikasketa+zerbitzuko proiektuak ezin egokiagoak izan daitezke prozesu horiek prestatzen hasteko.

Distantzia fisikoa ez da arazoa; bideokonferentziek, mezu elektronikoez, proiektuak lan egiteko tresna informatikoez... zerbitzu-ekintzak prestatzeko, planifikatzeko eta abian jartzeko egon daitezkeen oztopoak hausten dituzte.

Sareak ehuntzeko bokazio horren ondorioz, ikasketa+zerbitzuko proiektuek bat egiten dute Garapen Jasangarrirako Helburu honekin:



Proiektu guztiak ideia batekin hasten dira, gehienetan hezitzailearen kezka baten ondorioz. Ideia hori partekatu eta zabaltzeko egiten da, baina adingabeen konpromisoa behar da, proiektua beren gain har dezaten eta planteatutako helburuak lortzeko behar den protagonismoa izan dezaten.

9.1. Barneratze-aldia

Horrelako neurrietan, helburua da kontrolari arreta jartzea diziplinarteko esku-hartze baten bidez eta premia pertsonal eta sozialei erantzutea. Zenbat iraun behar duen eta zer neurri mota ezarri behar den beste eskaera batzuek zehazten dute. Zentroa hezkuntza-toki berria da eta ikasketa-esparruak garatzeko beharrezko baliabideak eskaini behar ditu, gabezia handiak kontuan izanik.

Zentroa, erakunde gisa, ingurune berri bat da gaztearentzat eta aurreko inguruneak ordezkatzeko ditu. Aurreko inguruneek porrot egin dute, eragin negatiboa izan dute gaztearengan eta haren jarrerak eta ohiturak baldintzatu dituzte. Komunitate batetik baztertua izan da eta berriro komunitatera hurbiltzeko eredu eta rol berriak behar ditu.

Beraz, ikasketa formaleko eta ez-formaleko espazioetan, era guztietako proiektuak has daitezke: banakako proiektu batekin konpromiso pertsonala hartu, talde proiektu batean parte hartu zentroko derrigorrezko hezkuntzan edo derrigorrezkoaren ondorengoan, edo zentroan egiten diren jarduerak ez-formalen esparruan.

BP (neurria gauzatzeko egingo den Banakako Programa) horretan ezarritako helburu guztiek gizartearen eta norbanakoaren gaitasunak hobetzen laguntzen dute. Zentroko bizikidetzak hobetzen ere laguntzen dute.

Ikasketa+zerbitzuko proiektu batean gaitasun hauek landu daitezke: zeharkako gaitasunak, besteak beste, Ingurumen Hezkuntza, Balioen Hezkuntza, Bide Hezkuntza eta Trebetasun Sozialak, eta proiektuaren curriculum-arloko gaitasunak (Natura Zientziak, Geografia...). Zerbitzutik sortzen den komunitate-ekintza eraldatzaileak gizarte-aldaketaren eragile izateko kontzientzia eragiten du (autoestimua, autoeraginkortasuna eta autokontzeptua hobetzen ditu), eta delituari ematen zaion erantzuna ere hobetzen du esku-hartze espezializatua eginda.

9.1.1. Erregimen itxiko barneratze-aldia

Halakoetan, ikasketa+zerbitzuko banakako programa bat egin daiteke, banakako programan (BP) zehaztutako helburuei egokitua, neurri judizialak irauten duen bitartean. Talde-mailan ere parte har daiteke, adingabeen zentroan ikasketa+zerbitzuko proiektu bat sortzen bada, adingabe/gazte bakoitzarentzat berariazko helburuak jarrita.

Proiektu bakoitza bai BPan ezarritako helburuekin, bai bizikidetzako helburuekin (B) lotuta egon daiteke. Horri esker, barneratze-aldiko faseak (hasieratik bukaerara) gainditu ahal izango ditu gazteak.

Geure burua ingurune hurbilena aldatzeko eta aldaketak esperimintatzeko gai ikusten dugunean jakingo dugu barneratze-neurria amaitu eta familiara/auzora itzultzean errutina berriak praktikan jartzeko behar den segurtasuna lortu dugula.

Elikagaien xahuketari STOP

Deskribapen laburra	Ekizpen-, banaketa- eta kontsumo-prozesuan xahutzen diren elikagaien kopuruari buruz kontzientziatu ondoren, kontsumo-ohiturak eta -jokabideak aldatzen laguntzeko kanpaina bat antolatuko dugu. Zentroan bertan hasiko gara aldagetak egiten eta gero komunitatera zabalduko dugu ekimena. Horretarako, auzoko sukaldaritzako enpresekin harremanetan jarriko gara kanpaina aurkezteko, nutrizio-dieta egokia izateko arazoak dituzten pertsonetako konpromiso gisa.
Proiektuaren helburuak	Zaborretara egunero joaten diren elikagai erabilgarrien kantitateari buruz sentsibilizatzea. Egiaztatzea nola batetik janaria xahutzen den eta bestetik, aldi berean, gosea pasatzen duen jende asko dagoen. Kontsumitzaile gisa dugun eginkizunaz jabetzea. Konpromiso pertsonalak, familiartekoak eta sozialak hartzea.
Ikaskuntzak	Hizkuntza-komunikazioko gaitasunak. Gaitasun digitala. Ikasten ikastea. Mundu fisikoarekiko elkarreragina. Gizarte- eta herritar- gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala.
Zerbitzuak	Zerbitzua zentroan bertan hasiko da, norberaren eta zentroko jantokiko kontsumo ohiturak aldatzen. Kontzientziazio-kanpaina bat antolatuko da aukeratutako euskarrian (podcast bat, film labur bat...), zentroko bizikidetzak unitateekin partekatuko da, parte hartzen duten erakundearen webgunean.
Ekintzak, nola egiten den	Zentroko osasun-hezkuntzako programako nutrizioari buruzko ikastarotik abiatuta, adingabe talde batek beste ikastetxe batzuek hasitako proiektu honetan parte hartzeko konpromisoa hartuko du. Zentroko errealitatera egokituko da. Zentroko sukaldearekin eta analisirako tresnekin ikerketa-prozedurak ezarri. Sare-lanaren mapa eta prozesuaren etapa bakoitzeko erantzukizuna definitu, parte-hartzaile bakoitzarengan hautemandako indarguneak eta gaitasunak kontuan hartuta. Gainerako ikastetxeekin eta sukaldaritzako enpresekin harremanetan jarri, garatu beharreko jarduerak zehazteko. Sukaldaritzako enpresen konpromisoa lortu, eguneroko hondarren aprobetxamendua definitzeko. Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren elkarreraginak ezarri.
BP/B helburuak	Lehenengo ekintzek jarduera antolatzeko lankidetzak-lana eta elkarrenganako errespetua sustatzeko balioko dute. Gizarteko arauak giza harremanetan eta talde-jardueretan nolako garrantzia duten kontuan hartzea.

Aliantzak	Lurraldean jasagarritasuna eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen babesa lantzen duten beste ikastetxe eta erakunde solidario batzuekin.
------------------	---

Geure burua ingurune hurbilena aldatzeko eta aldaketak esperimentatzeko gai ikusten dugunean jakingo dugu barneratze-neurria amaitu eta familiara/auzora itzultzean errutina berriak praktikan jartzeko behar den segurtasuna lortu dugula.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.1.2. Erregimen erdi-irekiko barneratze-aldia

Egoera horretan daudenek, barneratze-zentroko eta hezkuntza arautua edo lanerako prestakuntza egiten ari diren ikastetxeko proiektuetan parte har dezakete.

Ahots guztiak, ahots bakarra	
Deskribapen laburra	Kontua da rap edo kaleko poesiararen artean oinarritutako abestiak sortzea (musika ekoitzi eta letra sortu), gutxieneko errepertorioa osatzeko. Parte-hartzaileekin abesbatza osatuko da eta kontzertuak egingo dira erakunde laguntzaileetan.
Proiektuaren helburuak	Kantatuz protagonistei buruz hitz egingo duen eta pentsamendu bat defendatuko duen mezua, diskurtso berria eraikitzea. Kulturak harreman afektiboetan nolako garrantzia duen jabetzea.
Ikaskuntzak	Hizkuntza-komunikazioko gaitasunak. Sormen- eta arte-gaitasuna. Gaitasun digitala. Ikasten ikastea. Gizarte- eta herritar- gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala.

Zerbitzuak	Abesti bakoitzaren bideoklipa. Kontzertua auzoko Adinekoen Zentroan eta desgaitasuna duten pertsonentzako Zentroan («Hermano Pedro»).
Ekintzak, nola egiten den	Lehenengo ekintzek jarduera antolatzeko lankidetzak-lana eta elkarrenganako errespetua sustatzeko balioko dute. Gizarteko arauak giza harremanetan eta talde-jardueretan nolako garrantzia duten kontuan hartzea.
BP/B helburuak	Pentsamendu sortzailea eta musika sustatzea, ongizate emozionala areagotzeko tresna gisa.
Aliantzak	Udaleko gizarte-ongizateko arloarekin, adinekoentzako zentroarekin eta desgaitasuna duten pertsonentzako zentroarekin.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.1.3. Erregimen irekiko barneratze-aldia

Kasu horretan, gazteak bi gauza egin ditzake: ikasketa+zerbitzuko banakako programa bat egin, neurria betetzeko planteatu zaion banakako programan zehaztutako helburuetara egokitua, edo talde batean parte hartu. Talde-jarduera hori hezkuntza arautua (bigarren hezkuntza, lanbide-heziketa, helduen hezkuntza) edo laneko prestakuntza (enpleguarekin txandakatutako prestakuntza-programak, profesionaltasun-ziurtagiriak) egiten duen ikastetxean edo ingurune irekiko bizikidetzak-unitatean egiten diren jardueren esparruan egin dezake.

Eguneroko jarduera barneratze-zentroetik kanpo egiten dutenez, eta COVID-19ak sortutako konfinamendu-egoeraren ondoren maskarak erabili behar direnez, konturatu dira babes mota hori ez dagoela biztanleriaren sektore jakin batzuetan, kasu gehienetan beren familietan eta adinekoen eta etxerik gabeko pertsonen kolektiboan.

Zaindu zaitez, zaindu nazazu	
Deskribapen laburra	Bizitza autonomia sustatzeko oinarritzko eta beharrezko lanak (arropa, kuxinak eta gortinak konpontzea) egiten ikasten duten jostuntzako ikastaroa baliatuta, maskara babesleak egingo dira.
Proiektuaren helburuak	Enpatia sentitzea bakarrik edo mendetasun- edo/eta desgaitasun-egoeran bizi diren pertsonetako. Eguneroko ohituretan osasuna sustatzen duten jokabideak txertatzea (eskuak garbitu, banakako zein taldekako bizikidetzak espazioak txukundu, janari osasungarria jan, ariketa egokia egin...).
Ikaskuntzak	Genero-rolen antzematea eta zereginen banaketa zalantzan jartzea. Hizkuntza-komunikazioko gaitasunak. Gaitasun digitala. Ikasten ikastea. Gizarte- eta herritar- gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala.
Zerbitzuak	Adineko pertsonak eta etxerik gabeko pertsonak artatzen dituzten erakundeekin harremanetan jartzea, egindako maskarak helarazteko eta maskara horiek erabiltzeko beharraz kontzientziatzeko.
Ekintzak, nola egiten den	Premia bat ikusi da eta partekatuta egin da. Proposamenaren zirriborroa aurkeztu zaie, eta zerbitzua egin ahal izateko ideari eta burutu beharrezko zereginetara buruzko hausnarketa-prozesuak hasi dira. Hezitzaileen zeregina honako hau da: neska-mutilei ikerketa-prozesuan eta proiektua sortzeko prozesuan laguntzea, zerbitzu egokia eskaintzeko; behar bezala antolatzeke behar diren baliabide guztiak eskura jartzea; esparru horretan ikertzea ahalbidetuko dieten baliabide teknologikoak bermatzea. Neska-mutilek proiektu hau bere egin dezaten eta alderdi guztietan buru izan daitezen sustatzea.
BP/B helburuak	Hezkuntza-unitateetako bizikidetzak hobetzea, enpatia eta elkarrekiko errespetua oinarri hartuta.
Aliantzak	Gurutze Gorriarekin eta Iniziativas Humanas elkartearekin.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.1.4. Barneratze terapeutikoa

Jolas gaitzezen!	
Deskribapen laburra	Marketeria eta eskuzko jarduerako tailerretik, hezkuntza-premia bereziak dituzten haurrentzako hezkuntza-jolas sorta bat garatuko dute. Horrela, eraikuntza eta bloke jostailuak, buru-hausgarriak, jostailu sentsorialak, liburu sentsorialak, mahai-joko errazak, etab. egingo dituzte. Horretarako, haurrek egunerokotasunean dituzten zailtasunak ezagutu behar dituzte, baita jolasa hezkuntzarako eta errefortzu kognitibo eta psikomotorrerako elementu gisa erabiltzen jakin ere.
Proiektuaren helburuak	Beste gaitasun eta funtzionaltasun batzuk dituzten haurrekin enpatizatzea, haien desgaitasunak ezagututa. Jolasak haurren garapen psikosozialean duen garrantzia eta osasun fisiko eta mentalean eta ongizate emozionalean duen eragina ezagutzea. Jostailu horiek egiteko beharrezkoak diren trebetasunak garatzea, haien funtzionaltasunak ezagututa. Jolasguneak partekatzea haur horiekin, egindako jostailuak nola erabiltzen diren irakasteko.
Ikaskuntzak	Hizkuntza-komunikazioko gaitasunak. Ikasten ikastea. Gizarte- eta herritar- gaitasuna. Autonomia eta ekimen pertsonala.
Zerbitzuak	Jostailu-multzo oso bat egingo dute, udalerriko San Juan de Dios ikastetxeko hezkuntza-premia berezietako gela bateko haurrentzat pentsatua. Hainbat topaketa antolatuko dira gela horietan, egiten dituzten jostailuak eramateko eta haurrekin jolasteko. Horrela lan egiteak jostailua etengabe hobetzea ahalbidetuko du, hilabeteetan zehar izango duten harremanaren ondorioz ondo ezagutuko baitituzte jostailuen hartzailak eta haien ezaugarrietara egokituko baitituzte.
Ekintzak, nola egiten den	Silkasturte osoan egingo da. Adingabe/gazte bakoitzak jostailuen diseinuan parte hartuko du. Horretarako, lehendabizi, ikasturte horretan aukeratutako ikasgela bisitatuko du, adingabeak, hezitzaileak eta psikomotrizitateko espezialistak ezagutzeko. Haiek proposatutako helburua lortzeko behar duten informazio guztia emango diote. Informazio hori proiektua garatzen den lantegietan aztertuko da, eta jostailuak diseinatzeko eta eraikitzeko behar den informazio guztia bilatuko da. Behin betiko jostailuak eman aurretik, zenbait jolas-topaketa egingo dira diseinuak beharrian eta gaitasunekin alderatzeko.

Objetivos del PI/C	Proiektu honetan parte hartu ahal izateko, aurretiaz ohitura desagokiak baztertzeko eta bizimodu osasungarria egiteko konpromisoa behar da. Beraz, erronka bat da berez. Bizitza-proiektu berri baten erantzukizuna hartzeko konpromisoari esanahia ematea.
Alianzas	San Juan de Dios Zentroarekin.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.1.5. Asteburuko egonaldia

Gehienez ere hogeita hamasei orduz, ostiral arratsaldetik igande gauera, kontrol bat ezartzen da, arau-haustek saihesteko beharrezkoa den jarrera-aldaketarako konpromisoa hartzeko.

Banakako proiektuak jartzen ditugu martxan.

Animaliekin lagundutako terapia	
Deskribapen laburra	Hartutako kalte zerebralaren ondoriozko desgaitasunen errehabilitazioan lagundu, aliatu den elkartearen helburuekin bat etorrita.
Proiektuaren helburuak	Pertsonen arteko harremanak hobetzeko, jokabide prosozialak eta moldagarriak onartzeko beharra ulertzea. Ezarritako bizikidetzara-arauek errespetatzea. Terapia mota hauen erabiltzaileen enpatia garatzea. Errealitate desberdinei aurre egitea ahalbidetzen duten auto-erregulazio emozionaleko mekanismoak eskuratzea eta finkatzea.
Ikaskuntzak	Laguntzailearen zereginak zaldi-terapian. Zaldiak behar bezala garbitzea eta mantentzea eta horrek dakarren erantzukizuna.
Zerbitzuak	Actividades de auxiliar ecuestre para contribuir a la consecución de los objetivos de las terapias psicosociales de las personas usuarias de este tipo de terapias (en este caso personas con daño cerebral adquirido).

Ekintzak, nola egiten den	Premia bat ikusi da eta partekatu egin da. Proposamenaren zirriborroa aurkeztu zaie, eta zerbitzua egin ahal izateko ideari eta burutu beharrezko zereginetara buruzko hausnarketa-prozesuak hasi dira. Jardueraren plangintzan garatu beharrezko konpromisoak eta zereginak zehaztu dira.
BP/B helburuak	Errepideko arau-hauste bati dagokionez, beharrezko segurtasun-neurriak ez hartzearen ondorioez jabetzea. Ordutegiak betetzea. Laguntzeko jokabidea izatea.
Aliantzak	<i>Terapia Asistida con Animales</i> elkartearekin

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.2. Egoitza ingurune irekia

Hezkuntza Taldearekin etxe batean bizitzeak autokudeaketarako gaitasuna, norberaren autonomia eta beste gaitasun pertsonal eta sozial batzuk garatzen laguntzen du.

Zuretzako gutunak	
Deskribapen laburra	Konfinamenduan, sare sozialak komunitatearen laguntza behar zuten egoera askoren oihartzun bihurtu ziren. Agerikoa da adineko pertsonen nolako bakardade-egoera pairatzen duten ospitaleetan eta egoitza-zentroetan, konfinamendu horrek eragindako isolamendua dela eta. Horregatik, gutun anonimoak egin zaizkie etxean edo egoitza-zentroetan konfinamendu-egoeran egon diren adineko pertsona horiei eta sareko lanean aritutako gizarte-erakundeek eman dizkiete.
Proiektuaren helburuak	Bakarrik bizi diren eta gaixotasunak edo egoera ezgaitzaileak dituzten pertsonen egoerarekin eta sentimenduekin enpatizatzea. Egoera txarrean dauden adinekoen ongizate emozionalari laguntzea. Beren burua gizartearen eraldatzeko eragileatzat har dezaten bultzatzea.

Ikaskuntzak	Idatzizko komunikaziorako gaitasuna. Gaitasun pertsonalak, hala nola enpatia. Herritar-gaitasuna. Ahalduntzea.
Zerbitzuak	Gutunek motibazioa, ilusioa eta itxaropena sortzen dituzte; konfinamenduan zehar pentsamendu positibo lagungarriak piztu dizkiete gutun-hartzaileei.
Ekintzak, nola egiten den	Zerbitzuaren onuradunei buruzko sentsibilizazio-fasea, zerbitzua ahalbidetuko duten gizarte-erakundeekin harremanetan jarri; ikertu (albisteak, irakurgaiak, bideokonferentziak); gutunak hartzaileei nola helarazi zehaztu, zein baldintzatan, babes-neurriak; zerbitzuaren garrantziari eta beharrezko kalitateari buruzko gogoeta egin. Gutunak sortzeko prozesua eta kalitatezko zerbitzua lortzeko beharrezko ikasketak definitu. Lantaldeko kide bakoitzari zereginak banatu.
BP/B helburuak	Etxean bizi diren gainerako pertsonetikiko eta beste arduradun batzuekiko errespetu- eta erantzukizun-harremanak ezartzea. Zaintza emozionalaren garrantziaz jabetzea.
Aliantzak	Gurutze Gorriarekin, zerbitzu bat ematen baitie etxe isolatueta dauden adinekoei, elikagaiak eta farmazia-produktuak eramateko. Horrela, gutunen igorle bihurtu dira, saski bakoitzean bat gehituta. Iniciativas Humanas elkartearekin, adineko pertsonentzako egoitza-zentroetan dugun igorlearekin, alegia.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.3. Ingurune irekia

9.3.1. Zaintzapeko askatasuna

La ola compartida	
Deskribapen laburra	Proiektu pertsonalizatua, uretako kirolak egiteko gaitasunei balioa emateko eta presondegirako adinean ez dauden baina helduen erreferentziarik ez izateagatik edo gazte marjinalen taldeekin harremana izateagatik delitu-egitateetan parte hartu duten 14 urtetik beherako talde batekin lan egiteko. Zaintzapeko askatasuna duten gazteak uretako kirolen monitore bihurtzen dira, udako hilabeteetan haur horientzako surfaren hastapen-tailer bat abian jarrita.
Proiektuaren helburuak	Uretako kirolen bidez ohitura eta bizimodu osasungarriak sustatzea, 14 urtetik beherakoen egoera arazotsuei aukerak bilatzeko. Berdinen arteko hezkuntza sustatzea, ahots sinesgarriaren eragin ukaezinagatik.
Ikaskuntzak	Hizkuntza-komunikazioa. Aisialdi osasungarriko ereduak. Osasunerako heziketa. Ikasten ikastea. Gizarte- eta herritar- gaitasuna. Ahalduntzea.
Zerbitzuak	Surfaren hastapen-ikastaroa aisialdi osasungarriko jarduera gisa, hiri inguruko auzo bateko haurrentzako udako jarduera programa baten esparruan. Elkarrizketaren bidez eta irtenbideak azpimarratuta, hausnarketarako gune bat garatzen da.
Ekintzak, nola egiten den	Zenbait erakundek eta ikastetxek beharrezkotzat jotzen dute delitutik gertu dauden jarduerekin jolasten dabiltzan edo zigor-arloko adingabeekin delituetan parte hartu duten 14 urtetik beherako haurrek hurbiletik ezagutu dezaten zer dakarren neurri judizial batek: adibidez, barneratze zentro bat bisitatu, han bizi den egoera ikus dezaten. Baina proposamen honekin, espazio atseginetara hurbiltzen gara, hondartzara adibidez, horrelako bizi istorioak partekatzeko. Auzoan adingabeekin lan egiten duen GKEarekin harremanetan jarri gara, jarduera planifikatzeko eta prestatzeko, Ciudad del Mar-eko zinegotziaren baimenekin, auzotik gertu dagoen hondartzan egiteko. Aurretiko beste proiektu batzuetan parte hartu duten erakundeekin ere harremanetan jarri dira, lankidetzaz berezia eskatzeko, eta frutaz eta urrez hornitu gaituzte, jardueran egin beharreko esfortzu fisikoarekin bat datorren gosari bat egiteko.

BP/B helburuak	Aisialdiko edo kiroleko jardueraren batean parte hartzea, elkarreragin berriak ezartzeko eta aisialdi osasungarriaz gozatzeko.
Aliantzak	Auzoko adingabeekin lan egiten duen GKEarekin; Ciudad del Mar-eko zinegotzigoarekin, talde txiki batekin praktikatzeko beharrezkoak diren surf eta bodyboard taulak uzteko; banana kooperatiba batekin, botilako ura banatzen duen enpresa batekin eta auzoko olio eta ozpin denda batekin.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.3.2. Tratamendu ambulatorioa

Inguruneko baldintzak berariazko tratamendu bat jasotzeko egokiak badira, mendekotasun-prozesuak edo disfuntzio esanguratsuak gaingidzen lagunduko dion programa terapeutiko batera jo daiteke.

Beraz, bere Banakako Programaren helburu nagusia drogen kontsumoak bizitzako eremu guztietan eragiten dituen kalteak ezagutzea da, bai eta bizi-ohitura osasungarriak sustatzea ere, drogen abstinentzia-programa batean sartzeko aukera izan dezan. Edo afekzio psikologikoen tratamendua egitea.

Artea sarean	
Deskribapen laburra	Aisialdi osasungarriko ekintza atsegingarriak sustatzea. Aisialdia hainbat modutan betetzen da, udalak utzitako espazioak edo aldi baterako utzitako orube pribatuak konponduz eta edertuz denen gozamenerako. Horregatik, banakako proiektu hau ahalduntze- eta lidergo-ariketa bat da, gazteak auzoko gazte talde bat proiektuan inplikatur hartzen baitu lider eginkizuna.
Proiektuaren helburuak	Aisialdiko jarduerak aberastea, drogen kontsumoa murrizteko eta taldearen kontsumitzeko presioei aurre egiteko. Espazio publikoen okupazioari buruzko araudia ezagutzea, horrelako tokiak hobeto erabiltzeko.

Ikaskuntzak	Osasunerako heziketa. Ikasten ikastea. Gizarte- eta herritar- gaitasuna. Ekintzailerak.
Zerbitzuak	Auzoko kultura- eta kirol-zentroak gauz ireki daitezen sustatzea, modu parte-hartzailean diseinatuta, proiektuarekiko atxikimendu-maila handiagoa lortzeko eta itxaropenei egoki erantzuteko.
Ekintzak, nola egiten den	Auzoko gazte-talde bat konbentzitu eta mugiarazi erronkari aurre egiteko, lurraldeko gazte-elkarteen –halakorik egonez gero– edo gazteriako zinegotzigoaren laguntzarekin. Administrazio-ezaugarriak zein diren enteratu, udalari proposamen egokia egiteko. Garatu beharreko birgaitze- edo egokitze-ekintza planifikatu, eta udalarekin hasierako egokitzapen-obra egin ditzan adostu, edertze lanean hasi aurretik.
BP/B helburuak	Tresna pertsonalak eskuratzea, ondorioak aurreikusteko pentsamendua eta pentsamendu kritikoa aktibatzen gai izateko eta, hartara, arazoak modu egokian kudeatzeko. Pentsamendua asertibitatean, gatazken konponketan eta indarkeriaren ordezko erantzunetan oinarritzen da.
Aliantzak	Udaleko gazteriako eta hirigintzako zinegotzigoekin eta lurraldeko gazteen elkarte-sarearekin.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.3.3. Gizartearen aldeko zerbitzuak

Repar-Arte	
Deskribapen laburra	Proiektu honen xedea da bandalismo-jokabideengatik hondatuta dauden funtsezko baliabide komunitarioak (ondasun publikoak edo hirugarrenenak) konpontzea eta mantentzea: haur-parkeak, autobusak, tranbiak.... Garbiketa edo konponketa horrek ikuspegi aldaketa eragiten du, gazteak zenbat kostatzen den konturatzen baitira.
Proiektuaren helburuak	Ulertaraztea tokiko komunitateak edo pertsona jakin batzuek inongo arrazoirik gabe jasan dituztela jokabide desegokiak ondorio txarrak eta konpondu egin behar direla. Hondatutako edo apurtutako hiriko altzariak berritzeko edo ordeztzeko egin beharreko lanen garrantzia ezagutzea.
Ikaskuntzak	Sormen- eta arte-gaitasunak. Aisialdi osasungarriko ereduak. Osasunerako heziketa. Ikasten ikastea. Gizarte- eta herritar- gaitasuna.
Zerbitzuak	Hondatutako hiriko altzariak konpontzen laguntzea horretaz arduratzen diren udaleko taldeekin. Haurren eta gazteen aisialdirako guneak hobetzeko edo diseinatzeko ekintzak sustatzea. Aisialdirako guneak diseinatzeko material birziklatua aprobetxatzeko proiektuak.
Ekintzak, nola egiten den	Garrantzitsua da inplikatu nahi diren udal-zerbitzuekin harremanetan jartzea, baita auzoan dauden eragile komunitario guztiekin ere, zerbitzuak benetako eragina izan dezan eta benetako premiekin lotuta joan dadin. Auzoko gazteentzako jokabide bandalikoei buruzko sentsibilizazio-ekintzak.
BP/B helburuak	Komunitatearekiko eta arduradunekiko errespetu- eta erantzukizun-harremanak ezartzea. Gune komunitarioak zaintzearen garrantziaz jabetzea
Aliantzak	Udal administrazioekin (garbiketa zerbitzuak, parke eta lorategiak ; gazteria-zerbitzua, herritarren partaidetzarako zerbitzua...), jantoki sozialekin eta etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten erakundeekiko sinergiak.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



9.3.4. Gizarte- eta hezkuntza- arloko zereginak

Konekta gaitzen, elkarrekin gaude	
Deskribapen laburra	COVIDak eragindako konfinamenduaren eta pandemiaren ondorioak pairatzen ari diren familien errealitatera hurbiltzea proposatu da. Auzokideen elkarteak, lanpostuak desagertzearen ondorioz familia askok duten prekarietatea dela-eta, elikagaien banku bat ireki nahi izan du eta egokiera hori aprobetxatu da. Gaztea administrazioko laguntzaile ikasketak egiten ari da eta prestakuntza hori balioetsi egin da proiektuan modu aktiboan parte hartzeko.
Proiektuaren helburuak	Gizarte-gaitasunaren garapena sustatzea, ingurune hurbilenera hobeto moldatzeko. Bestelako jokabideak egonkortu daitezen sustatzea, bestelako emaitza eta erantzunak lortzeko. Euren adineko gazteen talde prosozialetara hurbildu daitezen sustatzea, haien babesarekin sozializazio falta arintzeko.
Ikaskuntzak	Norberaren gaitasunak eta gaitasun sozialak: enpatia, tolerantzia, autonomia, segurtasun emozionala, elkartasuna, arau eta balio sozialekiko errespetua.
Zerbitzuak	Auzoko elkarteak sustatutako elikagaien bankua martxan jartzea.
Ekintzak, nola egiten den	Behin elkartearekin harremanetan jartzen hasita, lan-taldeko prozesu batean murgildu dira gazteak eta zeregin administratibo zehatzak hartu dituzte beren gain. Zeregin horiek esker, gizarte- eta hezkuntza-gaitasunak egonkortu dituzte.
BP/B helburuak	Hasitako prestakuntza- eta lan-ibilbideari buruzko begiradan eta ikuspegian aldaketa sustatzea, erabakia sendotzeko eta kudeaketa-trebetasunekin esperimentatzeko.
Aliantzak	Auzokideen elkarteak.

Proiektua GJH hauekin lotuta dago:



10. IKASKETA+ZERBITZUKO PROIEKTUAREN ADIBIDE GARATUA: IRRIBARREAK ERAIKI

Eskerrak ematen dizkiogu Pioneros Fundazioari proiektu honen ekarpenagatik. Egokitzapenak egin ditugu, ikasketa+zerbitzuko proiektu baten fase guztiak egin ahal izateko.

10.1. Sarrera

Proiektu honen protagonistak 14 eta 17 urte bitarteko neska-mutlak dira eta neurri judizial bat betetzen ari dira, ingurune irekian edo barneratze-neurriarekin.

Gazte talde hau Pioneros Fundazioak kudeatzen duen Lan Aurreko Programaren barruan dago. Helburua da prestakuntza- eta lan-gaitasunak areagotzea, lana lortzeko edo ikasketei berriro ekiteko.



10.2. Proiektuaren sinopsia

Gazteek, haurren eskubideak ezagutu ondoren, gogoeta egin zuten jolasteko eta hezteko eskubidearen gainean. Ondorioztatu zuten eskubide horiek ez zirela bermatuta egon beren eta beste ume askoren haurtzaroan. Gogoeta horretatik eta euren aukeretatik abiatuta, material pedagogikoa, jolasak eta ingurumen-jarduerak egin zituzten, Haur eta Lehen Hezkuntzako Caballero de la Rosa ikastetxeko ikaskuntza-komunitateko haurrei errazago ikasten laguntzeko. Ikastetxe hori hautatzeko bi arrazoi egon ziren: batetik, ikasleen profila (% 80 immigranteak) eta, bestetik, haietako askok ikastetxe horretan ibili zirela umetan.

10.3. Proiektuak zein gizarte-premiari erantzuten dion

Haur eta Lehen Hezkuntzako Caballero de la Rosa ikastetxean ikasteko eta jolasteko espazio eta materialak sortu beharra zegoen, haurren jolasteko eta hezteko eskubidea bermatzeko.

Ikastetxe horretako familia asko etorkinak dira, marokoarrak eta pakistandarrak batez ere. Baliabide ekonomikoak urri dituzte eta aukerak ere gutxi; ondorioz, lana bilatzea eta mantentzea da haien lehentasuna. Gauzak horrela, eskolak protagonismo handia du haurren ikaskuntzan eta jolasean.

Ikasketa+Zerbitzuko proiektu honek bi ikasturte iraun du. Denbora horretan, nerabeek material pedagogikoak fabrikatu dituzte, ikastetxeko jolastokia birdiseinatu dute, eskolako baratzea bultzatu, intsektuen estatua sortu, eta ingurumenarekin zerikusia duten beste ekintza batzuk ere burutu dituzte, ikastetxe horretako umeek ikasteko erraztasun gehiago izan dezaten zentzumenen eta jolasaren bidez.

10.4. Proiektuaren gazte protagonisten hezkuntza-premiak

14-17 urteko gazte horiek neurri judizial bat betetzen ari ziren, ingurune irekian edo zaintzapeko askatasunean. Gainera, ez zuten derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu, eta hezkuntza-sistema errefusatzen zuten, bertatik kanporatuak sentitzen zirelako.

Bi hezkuntza-premia argi zeuden:

- Komunitatearen parte zirela sentitzea, bai eta komunitatea osatzen zuten testuinguru guztien parte ere, bazterkeria-sentimendua murrizteko, egoera judiziala gorabehera.
- Beren gaitasunetan konfiantza berreskuratzea, aldatzeko eta bizitzan oro har, eta prestakuntza- eta lan-ibilbidean bereziki arrakasta lortzeko motibazioaren funtsezko elementu gisa.

Gure ustez, proiektu honek premia horiek indartu zituen: alde batetik, ikasketen erabilgarritasunaz jabetu ziren jatorrizko auzoko ikastetxearentzako materialak eta jarduerak sortzeko orduan. Bestalde, hezkuntza- zein gizarte-komunitate osoaren errekonozimendua jaso zuten. Eskolara itzuli ziren, batzuk euren haurtzaroko eskolara, hau da, hezkuntza-sistemara bueltatu ziren, kanporatu eta baztertu egin zituela sentitzen zuten sistema hartara.

Erronka berri bati egin behar izan zioten aurre: rola aldatzea, eurak izatea komunitatean ekarpenak egiten zituztenak eta ongizatea sortzen laguntzen zutenak. Zerbitzua ematen zuten egun bakoitzean ongizate hori errekonozitzeak ingurunean ez ezik, euren barnean ere eragin zituen aldaketak.

10.5. Zerbitzuaren eta zereginen deskribapena

Azaroaren 20an, Haurren Nazioarteko egunean, haurren eskubideei buruz hausnartzera bideratu ziren eguneko jarduera guztiak. Egun horretan Errioxako Herriaren defendatzaileak bisita egin zigun.

Hortik aurrera, hainbat ondorio atera ziren, eta haietako bi indarrez planteatu ziren:

- Hezkuntzarako eskubidea, uste baitzuten ez zitzaizela bermatu.
- Jolasteko eskubidea, hori ere ez zutelako bermatua izan.

Nerabeen taldearekin bi ondorio horiei buruzko gogoeta egin zen eta ikerketa sakonagoari ekin zitzaion. Horretarako, haurren lekukotasunak, prentsa-artikuluak... batu ziren.

Hortik aurrera, ikasketa+zerbitzuko proiektu bat eratzen hasi zen, bi eskubide horien inguruan. Nerabeen erronka zen haurrei bi eskubide horiek bermatzen laguntzea. Horretarako, harremanetan jarri ziren Caballero de la Rosa ikastetxearekin. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleek, ikastetxeko zuzendaritzak, Lehen Hezkuntzako bi ordezkariak, guraso-elkarteko guraso batek eta nerabeek hartu zuten parte bilera horretan. Erronka planteatu zen, eta ikastetxeak arlo horretan zuen gizarte-premia zehaztu zuen. Gazteak prest eta motibatuta sentitu ziren premia hori asetzeko.

Zerbitzu-eremu honen xedea da gazte eta haur horien bizitzetan hezkuntza formala balioestea. Lotura zuzena du GJH hauekin:



Zerbitzuaren helburu zehatzak:

- Montessori metodoaren eta Waldorf hezkuntza-sistemaren material pedagogikoak sortzea ikastetxeko Haur Hezkuntzako hiru gelatarako eta Lehen Hezkuntzako bi gelatarako: tamaina eta kolore desberdinetako Tangramak, irudiak egiteko bi geoboard eta biderkatzeko taulak praktikatzeko bi taula.
- Jolas tradizionalak diseinatzea eta pintatzea ikastetxeko jolastokian: xakea, twisterra, hiru marran eta txingoka.
- Fundazioaren berotegian landareak ereitea eta, ondoren, ikastetxeko eskola-baratzean birlandatzea.
- Eskolako baratzea zaintzea.
- Intsektuentzako ostatua diseinatzea eta egitea.
- Jolastoki inklusiboagoa diseinatzea, hareazko eremuekin eta zirkuituekin.
- Emandako material guztiak hurrekin partekatzea eta erabiltzen irakastea.

Zerbitzuaren zereginak

Taldea prest eta motibatuta sentitzen zen ikastetxeak egindako eskaerari erantzuteko. Eskaera hori ikastetxean egindako lehen bileran sortu zen. Horretarako, nerabeak hainbat batzordetan antolatu ziren:

- **Komunikazio-batzordea:** ikasketa+zerbitzuaren prozesu osoaren erreportaje grafikoa eta dokumentala egiteaz arduratu zen. Kanpoko kontaktuekin (ikastetxea, familiak, hedabideak, Logroñoeko Udala) beharrezkoak ziren hitzorduak kudeatu; proiektuaren bloga diseinatu, gero neska-mutil guztiek parte hartzeko; ekintzen argazkiak eta bideoak atera; eta behar ziren elkarrizketak egin.
- **Zerbitzua planifikatzeko batzordea:** oharrak eta neurriak hartu eta zerbitzua arrakastaz burutu ahal izateko behar ziren baldintza guztiak bermatu. Gizarte-premia antzemandak, zerbitzuak zekartzan zeregin guztiak nola gauzatu erabaki zen, bai ikasgelan, bai tailerretan.
- **Zerbitzuko zereginak** ostegunetan egiten ziren, erabaki zelako egun hori eskaintzea ikasketa+zerbitzuari: goizeko batzarra, ikasgelako lana eta tailerreko lana. Goizero, 08:00etatik 08:30era, gosalduta bitartean, eguneko erronkak planifikatu eta antolatzen zituzten, proiektuan laguntzen zieten hezitzaileekin batera.

10.6. Ikaskuntza-helburuak eta curriculum-loturak

Ikasitako edukiak

Gaztetxo bakoitzak bere curriculum-egokitzapena zuen, DBHko 1. eta 2. mailetako edukiarekin, baina kasu batzuetan Lehen Hezkuntzako mailetan jarri behar genuen arreta (4. eta 5. mailetan).

Proiektuan zehar berreskuraturiko genituen ikaskuntzak errepasatzean, agerian geratu zen –curriculum-maila kontuan hartu gabe– neska-mutilek ikasteko hainbat jardura egin zitzaizketela. Ikasketa+zerbitzua tresna egokia da ikaskuntza bizkortzeko eta hainbat gaitasun integratzeko, eta horrek gazte bakoitzarengan konfiantza nabarmen handitzea eta ahalduzkoak dakar.

1.-Ezagutzen ikasi

- Haurren eskubideei buruzko pentsamendu kritikoa garatzea eta norberaren eskubideak nola bermatu diren ezagutzea.
- Eskubide horiei dagokienez ingurune hurbilean (auzoan, ikastetxean) dagoen gizarte-premia ikertzea.
- Pobreziaren kausak eta ondorioak ulertzea, eta horrek haurren eskubideen bermeari nola eragiten dion eta, aldi berean, gizarte-arazoak sortzen dituela konprenitzea.

- Kalitateko hezkuntzak bizitzan zehar duen garrantzia ulertzea, desberdintasunak eta bazterkeria murrizteko tresna dela jakinda.
- Zerbitzuari lotutako curriculum-ikaskuntzak:
 - **Matematikarako gaitasuna:** zenbaki arruntak, geometria, sistema metriko hamartarra, proportzionaltasuna.
 - **Hizkuntza-komunikazioa:** ahoko eta idatzizko adierazpena, informazio-iturriak, publizitate- eta kazetaritza-testuak, informazioaren antolamendua, eskemak, irakurketa, kazetaritza-erreportajeak egitea.
 - **Informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala:** irudiak interpretatzea, informatikako programak erabiltzea (testu-tratamendua, kalkulu-orria, planoak), argazki- eta bideo-kamera erabiltzea, hainbat baliabide digitaletan informazioa bilatzea.
 - **Humanitateak eta artea:** Montessori pedagogia, planoak egitea, publizitate-diseinua, zirkulu kromatikoa osatzea.

2.- Egiten ikasi: gaitasun teknologikoa, ikasten ikastea, ekimen-sena eta enpresa-espirtua

- **Ikasten ikastea:** talde-lana (erabakiak hartzea, gatazkak konpontzea, ebaluazioan hobekuntzak proposatzea, motibatzea); ikasteko estrategiak beharren arabera; lana antolatzekeo trebatzea; ezagutzatik abiatzea, proiektu osoan zehar egiten ari ziren aurkikuntzen bidez ezagutza hori zabaltzeko. Laguntza eta puntualtasuna; konpromisoak betetzea; higieena eta ordena, bai irudi pertsonalean, bai materiala entregatzean.
- **Gaitasun teknologikoa:** zerbitzuarekin lotutako tailerretan garatutako ikaskuntzak, hala nola pintura, elektrizitatea, zura, marrazketa teknikoa, planoen azterketa... Laneko babes-ekipamenduetara ohitzea eta uneoro jantzita eramateko beharra ulertzea. Zerbitzuaren jarduera bakoitzean erabili beharreko tresnak ezagutzea eta zaintzeko beharra ulertzea. Lanen plangintzan erabaki jasangarriak hartzea, kontuan hartuta noiz entregatu behar ziren materialak eta zer eta zenbat lehengai zegoen, kostuak murrizteko, eta aintzat hartuta zein den landareen eta berotegiaren ibilbide naturala.
- **Ekimen-sena eta enpresa-espirtua:** zerbitzu horiek emateak prestatzeko kezka berriak piztu zituen ikasleengan, heziketa behar duten eta ordura arte erabat baztertu zituzten lanbideetan, hala nola diseinu grafikoan. Gainera, tailerretan ikasitakoak eta garatu zituzten lidergo- eta plangintza-trebetasunek konfiantza sortu zieten lan-elkarrizketa batera joateko, eta hori erronka garrantzitsua da gazteentzat.
- Hezkuntza ahalduntzeko tresnatzat hartzea, sustatzea eta eskatzea, proiektuan parte hartu zuten aldeekin hitz eginda, delitu-jokabideak eta aukera-desberdintasunak gutzitzeko.

3.-Komunitatean edo taldean bizitzen ikasi, gainerako pertsonekin bizitzen ikasi: gizarte eta herritar gaitasunak, kultur kontzientzia eta adierazpenak

- Gizarte eta herritar gaitasunak: haurren eskubideak, erakunde publikoen eta gizarte-eragileen erantzukizuna, proiektuan parte hartzen zuten barneko eta kanpoko pertsona guztiekiko harremanak, sentimenduak eta emozioak identifikatzea, bizikidetz- eta elkarrizketa-arauak errespetatzea.
- Beste pertsona heldu batzuekin lan-ikuspegitik ezarritako harremanak eta helduen mundukoak (ikastetxeko irakasleekin, udaleko arkitektura arloko langileekin, kazetariekin...) konfiantza sortu zien. Era berean, gatazka-eredutik kanpoko bestelako harreman-eredu batzuk sortu ziren.
- Entregatu zituzten material guztien kalitateak, hau da, haurrek eta komunitate osoak (auzoa, familiak, irakasleak) emandako balorazio onak ahaldundu egin zituen proiektu honetako gazte protagonistak.
- Lanean bertan eta kanpoko pertsonekin sortutako zailtasunei aurre egiteko hainbat modu aurkitzea, ihes egin edo indarkeriazko jokabiderik gabe.
- Proiektu honetan zehar, komunitatearen barruan beste rol bat aurkitu zuten.
- Besteen balioak errespetatzea, adibidez: haurrek haien jokabideari buruzko eskaera zehatzak egiten zizkietenean, hala nola tabakoa edo biraoak zirela eta.
- Koordinazio-trebetasunak garatzea modu batera edo bestera proiektuan parte hartzen zuten pertsonekin.
- Beste gazte batzuk eta haurrak motibatzea, hezteko aukerak eta jolasteko eskubidea eska ditzaten.

4.- Izaten ikasi

- Proiektu osoan talde irekietan egindako autoebaluazioan, agerian jarri ziren gazteen baliabideak, bai eta gogoeta argiak ere sortzen ari ziren aukerei buruz, gazte bakoitza bere erregulazio emozionalerako martxan jartzen ari zen estrategiei buruz eta horrek proiektua ondo joan zedin eta komunitatearekiko harremanak egokiak izan zitezen zuen eraginari buruz.
- Proiektua bertan behera uzteaz eta jarraitzeko erabakia hartzeaz hausnartzea. Proiektuan irauteko erabaki libre eta autonomia sustatzen ziren; horrela, ongizate psikologikoa sortzen zen eta bizitzan ematen dituzten urratsetan hartzen duten ardura eta konpromisoa indartzen ziren.
- Ahalegina, iraunkortasuna eta frustrazioarekiko tolerantzia baloratzea. Zalantzarik gabe, proiektuan egunero jarri behar izan dituzte martxan balio horiek.
- Norberaren ibilbidean une hartan bizi zuten prestakuntza-aukera aprobetxatzeko gaitasuna.

Nerabeek gaitasun horiek guztiak landu zituzten, nork bere heldutasun- eta curriculum-mailatik abiatuta. Argi geratu zen tresna honek ahalmen handia duela haien gaitasunak ez ezik inklusioa ere hobetzeko.

10.7. Sareko lana

Proiektu hau gauzatu ahal izateko, indar asko batu behar dira, barnekoak zein kanpokoak:

- Fundazioaren zentroa eta Caballero de la Rosa ikastetxea, ikasketa+zerbitzuko proiektua gauzatu ahal izateko.
- Logroñoeko Udala, eta arkitektoaren laguntza, ikastetxeko jolastokian egin beharreko egitura-aldaketa guztiak egiteko.
- Familiak: bai ikastetxeak –seme-alabentzat nahi zuten jolastokiarenz ideiak proposatzeko, materialak emateko...–, bai zentroko familiak, izan ere, guraso batzuek lan batzuk egiten parte hartu zuten.
- Ikastetxean parte hartzen zuten boluntario eta elkarte batzuk, ikaskuntza-komunitatea da eta.
- Errioxako Unibertsitatea, Cadena Ser, Diario de La Rioja. Bitarteko horien bidez, proiektuaren hezkuntza- eta gizarte-eragina zabaltzeko modua izan dugu.

10.8. Espazioak, giza baliabideak eta bitarteko materialak

Kanpoan, ikasgelan eta lantegian egin ziren jarduera garrantzitsuenak honako hauek dira:

- Nerabeek eta ikastetxeko haurrek irakurketa dialogikoak egin elkarrekin: irakurketa dialogiko erraldoia egin genuen Logroñoeko erdiguneko plaza batean eta 100 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte.
- Ikasgelan talde elkarrengileak antolatu, curriculum-edukiak lantzeko boluntarioekin: ikastetxeko irakasleak; kazetari bat; institutuko orientatzaile bat, nerabeentzako erreferentziazkoa; fundazioko kudeatzailea.
- Solasaldiak Cadena Ser irratiari: "Hitz egin dezagun hezkuntzaz".
- Informazioa ikertu eta bilatu haurren eskubideei buruz, materialak inspiratzen dituzten pedagogiei buruz...
- kasgelako lana eta lantegiko lana: materialak prestatu, diseinatu eta fabrikatu.
- guneroko lana antolatzeko batzarrak eta asteroko hausnarketa-taldeak, plangintza egiteko, programatutako lana ebaluatzeko, beste alderdi pertsonalago batzuk kudeatzeko...
- Topaketak ikastetxearekin, zerbitzuaren hartzailea zenez gero, planifikatu eta ebaluatu ahal izateko.

- Hitzaldia Errioxako Unibertsitatean, nerabeak ahalduntzeko eta proiektu honekin zer egiten ari ziren eta zer bizitzen ari ziren kontatzeko.

Honako hauek izan ziren giza baliabideak:

- 10 irakasle Fundazioko nerabeekin.
- Errioxako Hezkuntza Saitetik etorritako irakasle 1.
- Caballero de la Rosa ikastetxeko Haur Hezkuntzako 4 irakasle eta Lehen Hezkuntzako 18.
- Fundazioko 15 guraso eta Caballero de la Rosa ikastetxeko 6.
- 5 boluntario.
- 2 atezain.

Baliabide materialak:

- 2 furgoneta.
- Fundazioko instalazioak: ikasgelak, informatika-gela, lantegiak, liburutegia, bilera-gela.
- Ikastetxeko instalazioak: jolastokiak, ikasgelak, liburutegia.
- Enpresa pribatuek emandako zenbait material.
- Makineria, zerbitzuetako materialak eraiki ahal izateko.
- Berotegia.


Lankidetzan aritu diren erakundeak:

- Errioxako Unibertsitatea.
- Logroñoko Udala.
- *La Rioja* egunkaria.
- Cadena Ser.



10.9. Kronograma

Astean egun bat eskaintzen zitaia: osteguna. Entregatzeko data errespetatzeko, egun batzuetan gogor egin behar izan genuen lan, batez ere hiruilekoko ebaluazio bakoitza egin ondoren eta oporrak iritsi arte.



2. irudia: kronograma. Iturria: geuk egina.

10.10. Ospakizuna eta zabalkundea

Ospakizuna ikasketa+zerbitzuko proiektuen funtsezko errituala da komunitate osoak egindako ikaskuntza, aldaketa eta zerbitzua agerian jarri ahal izateko. Proiektua ospatzeko lau une garrantzitsu nabarmendu ditzakegu:

- **Lehenengoa:** materialak entregatzeko unea. Haurrak eta nerabeak elkarrekin zeuden eta elkarrekin bizi izan zuten material pedagogikoen lehen entrega.
- **Bigarrena:** materialak entregatzeko unea. Topaketa honetan lorezaintza-lanak egin zituzten (hazitegiak), eta nagusiek landareak erretzeko eta hazteko prozesua azaldu zieten adingabeei.
- **Hirugarrena:** materialak entregatzeko unea. Nerabeak adingabeekin elkartu ziren Caballero de la Rosa ikastetxean ondo pasatzeko eta ikasteko espazio bat partekatzeko. Jolastokiko zoruko jokoak eta jarritako gurpilak lehen aldiz erabili zituzten. **Horrez gain**, aurreko topaketan erein zituzten landareak eman zizkieten.
- **Ikasturte amaierako festa:** Ikasturte amaierako jaian, guztiek hartu zuten parte: ikastetxeko eta zentroko familiak, neska-mutilak, irakasleak, boluntarioak, ikastetxeko irratia. Errekonozimendu-ekitaldi bat egin zen: protagonista bakoitzari diploma bat eta opari pertsonalizatuak eman zitzaizkien, egindako lana eta ahalegina eskertzeko.

Zabalkundea: Komunikazio-batzordea eratu zen nerabe talde batekin eta hezitzaileen laguntzarekin. Zabalkunde-ekitaldi guztietan neska-mutilek aktiboki parte hartu zuten, bi helbururekin:

- Ikasketa+zerbitzuaren hedapena sustatzen dutenak ikastetxeko ikasleak izatea.
- Gazteek bizitzen ari direnari izena jartzea, gizarteari esperientzia kontatzea lagungarria baita norberari gertatzen zaiona hitzetara ekarri eta hobeto ulertzeko.

Hainbat zabalkunde-ekintza egin ziren:

- Pankarta identifikatzailea. "I+Zn gaude", bai prestakuntza-zentroaren fatxadan, bai ikastetxearen fatxadan.
- Gazteen bloga. Proiektuaren garapenari buruzko komunikazio ugari egin zituzten, eta haien ikuspegi eta balorazio propioa txertatu zuten.
- Hiruhilekoko buletinak. Hiruhileko bakoitza amaitzean, proiektuaren ekintzak biltzeko buletina egin zen, eta familia bakoitzari eman zitzaion, lortutako kalifikazioekin batera.

- Ikasketa+zerbitzuari buruzko Estatu mailako Topaketa; bertan ikasleek proiektua azaldu zuten.
- Ikasketa+zerbitzuko proiektua irratian. Hezitzaile baten ikasleek proiektuan bizitako esperientzia kontatu zuten Radio Riojako espazioaren bidez. Cadena Ser.
- Hezkuntzaren etorkizunerako hezkuntza-sistemak. Ikasleek Errioxako Ikasleen Gurasoen Elkartearen XXXI. Hezkuntza Jardunaldian parte hartu zuten esperientzia azaltzeko.

10.11. Ebaluazioa

Ebaluazioa etengabea izan zen proiektu osoan (denbora-lerroa, horma-irudiak, elkarriketak, ebaluazio akademikoko probak...). Zer lortu nahi zen ebaluazio etengabea eginda?

- Proiektuaren asmo pedagogikoari eustea ekintza bakoitzean eta eratorritako bizipenetan.
- Ikaskuntzak sistematizatu eta zerbitzuari lotu behar duela azpimarratzea eta protagonistak aurretik, bitartean eta ondoren ikasten ari zirena berrestea.
- Uneoro baloratzea zerbitzuak benetakoa izan behar duela eta benetako premiari erantzun behar diola, hobetzeko helburuarekin.

Praktikan, ebaluazioa honela egin zen:

- Nerabeen taldeekin eta hezitzailearekin astero ebaluazioa egin, proiektuaren hasieratik.
- Hilero banakako ebaluazioa egin, kasu batzuetan familiarekin, ikasketa+zerbitzuko proiektuaren barruan zuen zeregina nola bizitzen ari zen baloratzeko.
- Hiru hilean behin, ebaluazioa egin zerbitzua jasotzen zutenekin.
- Hiruhileko bakoitzean, autoebaluazioko atal berezi bat gehitu zitzaion kalifikazio-txostenari, ikasketa+zerbitzuko proiektuaz.
- Egunero elkarreraginak egon ziren proiektuan parte hartzen zuten pertsona guztiekin.
- Nerabeei proiektu honetan laguntzen ari zen hezkuntza-taldeak ikasketa+zerbitzuaren ebaluazio orokorra egin.

Hona hemen hezkuntza-taldeak egindako ebaluazioaren ondorioetako batzuk:

Arlo pedagogikoan:

- Ikasteko motibazioa mantentzen du ikasleengan, eta hori ez da lortzen beste metodologia batzuekin.
- Etorkizuneko proiektu pertsonalerako interesa pizten du ikasleengan, ikasgelako ikaskuntzaren eta praktikaren arteko loturari esker.
- Taldeetan aurretik izan ez diren ikasleen arteko harremanak ahalbidetzen ditu.
- Era askotako gaitasunak erabiltzea eskatzen du, eta, beraz, beste era bateko gaitasunak dituztenak gai eta protagonista sentitzen dira.

Zerbitzuaren arloan:

- Gure ikasleentzat, araututako ikastetxe batean zerbitzua egiteak rol-aldaketa dakar "ikastetxe erakundearekiko"; onura bat sortzen du eskolan eta oso ondo baloratua da.
- Zerbitzua ematen duten nerabeen eta zerbitzua jasotzen duten haurren arteko kontaktuak poztasun ugari sortu ditu, haurren adierazkortasunak aukera eman baitie nerabeei lanaren emaitzaz jabetzeko eta euren dinamismoak haurrak motibatzen dituela konturatzeko. Testuinguru mobilizatzaile horri esker, ikasleek eta beste eragile batzuek (irakasleek eta, oro har, hezkuntza-komunitateak) testuinguruari iragazkortasun handiagoa eman diote.

Ebaluazioak protagonista bakoitzari bizitzen ari denaz jabetzen laguntzen dio, baita bakoitzaren lanari balioa ematen ere, eta proiektuaren ikuspegi globalagoa ahalbidetzen du. Proiektua etengabe ebaluatu dute blogean, talde-batzarrean, eguneroko ebaluazioan... parte hartuta.

Profesionalen parte-hartze maila erabatekoa izan da: garrantzitsua da programatzean, plangintza egitean eta ebaluatzean: bai proiektutik ateratzen den ikaskuntza, bai dakarren zerbitzua, bai estrategia pedagogikoa, bai planteatutako gizarte-premiarentzako erantzuna, bai sareko lana eta bai proiektua gauzatzeko ingurunean izandako eragin eraldatzailea.

Ikasleen **parte-hartzea** %100ekoa izan da. Agerikoa da asistentzian eta puntualtasunean, ikasgelan eta tailer praktikoan proposatutako jarduera guztien garapenean, ikastetxean, zentroan eta ingurunean.

Nabarmendu beharreko beste parte-hartze bat **familiena** da: apurka-apurka inplikatu dira proiektuak planteatzen zituen eskaerei erantzuteko. Eskaerak hauekin lotuta egon dira: talde interaktiboetan egiten ari ziren lan praktikoenetan (gurpilak, hareazko eremua, aroztegia...) parte hartzea eta laguntzea, eta planteatutako gizarte-premiari eman zaion erantzuna ebaluatzea.

Caballero de la Rosa ikastetxeko haurren iritziak:

- "Gustatzen zait lurra ukitzea, loreak landatzea eta loreontziei gure izena jartzea".
- "Gustatzen zaigu zuloak egitea haziak sartzeko".
- "Oso jarduera dibertigarria da".
- "Oso ondo pasatzen dut".
- "Esperientzia paregabea da eta beti errepikatu nahiko nuke".

Protagonista diren nerabeen iritziak:

- "Eskuzabal sentitzen naiz, nire denbora eta lana haurrei eskaini dizkiedalako... haiei gustatzea espero dut".
- "Atsegin dut ikastetxeak konfiantza izatea eta pozik egotea egindako lanarekin".
- "Pozik nago ikasgelan eta lantegian ikasi ditudan gauza berrieekin".
- "Zoriontsu izan gara".
- "Sentitzen dut egiten dudana baliagarria dela".



11. ZEHAZKI, ZER AUKERA DITUGU?

Agente hezitzaile gisa galdetzen badiot neure buruari: zergatik izan daiteke interesgarria edozein gaztek ikasketa+zerbitzuko proiektu baten protagonista izatearen esperientzia bititza?

Erantzuna aukera hauetan dago:

- Adingabeei beren errealitateetatik urrun dauden ingurune arrotzetara hurbiltzen laguntzen dieten hezitzaileak ezagutzeko aukera dute. Irakaslearen, adingabearen eta komunitatearen arteko oinarri banaezinaren bidez, gizarteratzen eta isolamendua saihesten laguntzen da.
- Gazteek aukera dute beren gaitasunak, ikasketak eta balioak komunitatean aplikatzeko.
- Gazteak rola aldatzen du. Laguntza eskatzen zaio, komunitatean guztion ongiari ekarpena egin diezazion; eginkizun aktibo eta eraikitzailea hartzen du; bere buruarekiko eta besteekiko erantzukizuna sustatzen du. Horrela, agian estigmatizatuta dagoen kolektibo horri buruz duen pertzepzioa hobetzen du.
- Ikasteko filosofia honek asko indartzen ditu arazoen konpontzea, talde-lana, komunikazioa, sormena, ekintzailtza, autoestimua eta gizarteratzea.
- Ikasketa+zerbitzua egoera ezin hobea izan daiteke prestakuntza-prozesuan egiten ari direnari erabilgarritasuna aurkitzeko, ezkutuko talentuak topatzeko, kualifikazio-maila egokiak lortzeko, beste ibilbide batzuk identifikatzeko... eskuratutako ezagutza eta balioak zerbitzuaren bidez praktikan jartzeko espazioak sortzen ditu, prestakuntza teknikoa eta lan-esperientziatik oso hurbil dagoen egokitzaipena eskatzen dutenak. Eta aldatzeko itxaropena piztu dezake, enplegurako orientazioaren bidez eta prestatu eta ikasi beharraz ohartaraziz, zailtasunak betetzeko lan-munduan txertatzeko.
- Testuinguru horretan lanean ari diren gizarte-erakundeek egiten duten lan ona agerian jarri eta balioetsi egiten da, baita hezitzaileek ingurunean gazteekin landutako hezkuntza-balioak dinamizatzeko egiten duten lana ere.

12. ITURRIAK

12.1. Bibliografia

BATLLE, ROSER (2013). El Aprendizaje-Servicio en España: el contagio de una revolución pedagógica necesaria. Madril: PPC.

BATLLE, ROSER Y ESCODA, ESTHER (coord.) (2019). 100 buenas prácticas de Aprendizaje-Servicio. Inventario de experiencias educativas con finalidad social. Madril: Santillana.

BATLLE, ROSER (2020). Aprendizaje-Servicio. Compromiso social en acción. Madril: Santillana Educación Argitaletxea.

DÍAZ-AGUADO, MARÍA JOSÉ (2003). "Diez condiciones básicas para prevenir la violencia desde la adolescencia. Aspectos psicosociales de la violencia juvenil". Estudios de Juventud aldizkaria, (62), 9-36 orr. <http://www.injuve.es/sites/default/files/62completa.pdf>

ESCODA PORQUERES, ESTHER (2018). "Algunos fundamentos teóricos del Aprendizaje-Servicio". En Eficacia del aprendizaje servicio en dimensiones académicas personales y sociales clave y su incidencia en la satisfacción estudiantil en la docencia universitaria. Doktorego Tesia. Valentziako Unibertsitatea. <https://redaps.files.wordpress.com/2018/09/algunos-fundamentos-tec3b3ricos-del-aps.pdf>

ESTALAYO HERNÁNDEZ, ÁNGEL (2011). "Violencia adolescentes y circularidad: de la teoría a la práctica". En PEREIRA, ROBERTO (comp.) Adolescentes en S.XXI. Entre impotencia, resiliencia y poder. Madril: Morata Edizioak. 385-401 orr.

FUNES, JAUME (1996). "Adolescentes y jóvenes en situación de conflicto social. Una reflexión sobre las respuestas adultas, incluido el sistema penal". Anuario de Psicología Jurídica, 6(1), 97-118 orr. <https://journals.copmadrid.org/apj/art/d94e18a8adb4cc0f623f7a83b1ac75b4>

FUNES, JAUME (2001). "Convivir con adolescentes. La gestión de los conflictos en las instituciones". Cuadernos de pedagogía. Monográfico (304), pp.36-40.

FURCO, ANDREW (2004). "El impacto educacional del aprendizaje-servicio. ¿Qué sabemos a partir de la investigación?". VII seminario internacional Aprendizaje y servicio solidario. Buenos Aires.

GIJÓN, MÓNICA (2009). "Aprendizaje-Servicio y necesidades sociales". En Puig, Josep M. (coord.). Aprendizaje-Servicio (ApS). Educación y compromiso cívico. Bartelona: Graó Argitaletxea, 53-70 orr.

GIJÓN, MÓNICA (2013). Aprendizaje-servicio e inclusión social. Bartelona: Centre Promotor d'Aprenentatge-Servei.

GONZÁLEZ ARES, VICTORIA (2020). "La educación en tiempos de confinamiento", Tiempo de Canarias, 5/IV <https://tiempodecanarias.com/opinion/planeta/educacion-en-tiempos-de-confinamiento>

HERRERO DE VEGA, MARGARITA (2006). "La terapia breve centrada en soluciones", XIII Jornadas de la Asociación Proyecto Hombre. Más allá de las drogas. Nuevos retos en la intervención con jóvenes. Revista de la Asociación Proyecto Hombre. (75), maiatza 2011, Madril, 28-32 orr.

HERRERO DE VEGA, MARGARITA Y BEYEBACH, MARK (2018). Intervención escolar centrada en soluciones. Conversaciones para el cambio en la escuela. Un manual práctico para profesionales de la educación. Bartelona. Herder. Edizio digitala.

JIMÉNEZ, LOURDES ISABEL; ESTÉVEZ, ESTEFANÍA; DEL MORAL, GONZALO Y POVEDANO, AMAPOLA (2011). "Violencia y victimización entre iguales: Factores de riesgo y de protección en la familia, la escuela y la comunidad". En PEREIRA, ROBERTO (comp.) Adolescentes en S.XXI. Entre impotencia, resiliencia y poder. Madril: Morata Edizioak. 403-424 orr.

LONGÁS, JORDI Y RIERA, JORDI (2011). "Fracaso escolar y tránsito de los jóvenes hacia la vida adulta. Razones y propuestas para apoyar la transición de la escuela al trabajo". Educació Social: Revista d'Intervenció Sòcioeducativa, (49), 147-162 orr. <https://www.raco.cat/index.php/EducacioSocial/article/view/250186>

LÓPEZ DORIGA, MARÍA Y MARTÍN XUS (2018). "El Aprendizaje-Servicio como práctica inclusiva". RIDAS, Revista Iberoamericana de Aprendizaje-Servicio, (6), 88-102 orr. <https://revistes.ub.edu/index.php/RIDAS/article/viewFile/27285/28292>

LÓPEZ MARTÍNEZ, CLOTY. ÁREA SOCIOLABORAL. FUNDACIÓN PIONEROS, LA RIOJA (2008). "El Aprendizaje-Servicio como herramienta en la transición escuela-trabajo". Monográfico Escuela: El Aprendizaje-Servicio, un método para la EpC y los Derechos Humanos. 16-19 orr.

LÓPEZ-ARANGUREN, LUIS (coord.); AYMÁ, LUIS; BASAGOITI, MANUEL; DE LA BELDAD, ESTHER; BRU, PALOMA Y CENICEROS, JUAN CARLOS (2008). ¿Por qué hacemos lo que hacemos? Una propuesta de debate para el Tercer Sector. Madrid: Centro Integral de Formación y Empleo, Fundación Tomillo.

MARINA, JOSÉ ANTONIO (2011). Los secretos de la motivación. Madril: Ariel Argitaletxea.

MARINA, JOSÉ ANTONIO (2015). El talento de los adolescentes. Madril: Ariel Argitaletxea.

MARTÍN, XUS (2016). Proyectos con alma. Trabajo por proyectos con servicio a la comunidad. Bartzelona: Graó Argitaletxea.

MARTÍN, XUS; PUIG, JOSEP M. Y GIJÓN, MÓNICA (2017). Reconèixer per Educar. Com incorporar l'Aprenentatge-Servei a l'educació social? Bartzelona: Bofill Fundazioa. Centre Promotor de Aprenentatge Servei. https://aprenentatgeservei.cat/wp-content/uploads/guies/reconeixer_per_educar.pdf

MARTÍN, XUS (coord.); ESPÍGOL, MAR; LEYVA, BEGOÑA; LÓPEZ-DÓRIGA, MARÍA; MARTÍNEZ, SILVIA Y VALERO, DOLÇA (2018). Educarse es de valientes. Aprendizaje-Servicio con adolescentes en riesgo de exclusión social. Bartzelona: Octaedro.

MARTÍNEZ-ODRÍA, ARANTZAZU Y GÓMEZ VILLALBA, ISABEL (2017). Aprendizaje-Servicio. Educar para el encuentro. Madril: Khaf Edizioak. Luis Vives argitalpen-taldea.

MENDÍA, RAFAEL Y MORENO, VÍCTOR (2010). Aprendizaje y Servicio Solidario: una estrategia para la inclusión social. 3. Guida. Zerbikas fundazioa. <https://www.zerbikas.es/wp-content/uploads/2015/07/3.pdf>

MENDÍA, RAFAEL (2016). "El Aprendizaje-Servicio: una metodología para la innovación educativa". CONVIVES Aldizkaria, (16), 20-26 orr. https://drive.google.com/file/d/0BwmG_rAXpAZfX28xYzBMMFIHYTA/view

MUSITU, GONZALO; MARTÍNEZ, BELÉN Y VARELA, ROSA (2011). "El ajuste en la adolescencia: Las rutas transitorias y persistentes". En PEREIRA, ROBERTO (comp.) Adolescentes en S.XXI. Entre impotencia, resiliencia y poder. Madril: Morata Edizioak. 109-126 orr.

OCHOA DE ALDA, IÑIGO (2011). "Interculturalidad, migración y familia. 'Acompañando' a menores extranjeros no acompañados". En PEREIRA, ROBERTO (comp.) Adolescentes en S.XXI. Entre impotencia, resiliencia y poder. Madril: Morata Edizioak. 266-277orr.

PUIG, JOSEP M.; BATLLE, ROSER; BOSCH, CARME Y PALOS, JOSEP (2006). Aprendizaje-Servicio. Educar para la ciudadanía. Bartzelona: Octaedro.

GIJON, MONICA; MARTIN, XUS Y RUBIO, LAURA (2011). "Aprendizaje-Servicio y Educación para la Ciudadanía", Revista de Educación, (número extraordinario), 45-67 orr. <http://www.educacionyfp.gob.es/dam/jcr:240fb305-454b-4f53-93e3-9bf0932ef5e5/re201103-pdf.pdf>

PUIG, JOSEP M.; MARTÍN, XUS; RUBIO, LAURA; PALOS, JOSEP; GIJÓN, MÓNICA; DE LA CERDA, MARIBEL Y GRAELL, MARIONA (2013?). Rúbrica para la autoevaluación y mejora de los proyectos de aprendizaje-servicio. Bartzelona: Centre Promotor d'Aprenentatge Servei. https://aprenentatgeservei.cat/wp-content/uploads/guies/aps_autoevaluacio_cast_mini_IMPA4.pdf

PUIG, JOSEP M. (coord.) (2015). 11 Ideas Clave. ¿Cómo realizar un proyecto de Aprendizaje-Servicio? Barcelona: Editorial Graó.
REDONDO ILLESCAS, SANTIAGO; MARTÍNEZ CATENA, ANA Y ANDRÉS PUEYO, ANTONIO (2011). Factores de éxito asociados a los programas de intervención con menores. Madril: Osasun, Gizarte Politika eta Berdintasun Ministerioa. https://www.observatoriodelainfancia.es/oia/esp/documentos_ficha.aspx?id=3687

REDONDO ILLESCAS, SANTIAGO; MARTÍNEZ CATENA, ANA Y ANDRÉS PUEYO, ANTONIO (2012). "Intervenciones con delinquentes juveniles en el marco de la justicia: investigación y aplicaciones". EduPsykhé, 11(2), 143-169 orr. <http://www.ub.edu/geav/wp-content/uploads/2017/06/Redondo-martinez-y-adrés-pueyo-2012.pdf>

ROCHE, ROBERT (1997). "Fundamentos psicológicos y pedagógicos del aprendizaje-servicio: la educación a la prosocialidad". Seminario internacional «Educación y servicio comunitario». Buenos Aires.

RODRÍGUEZ IZQUIERDO, ROSA Mª (2005?). Éxito y fracaso escolar en contextos socioculturales interculturales: El reto de educar a estudiantes de diverso origen lingüístico y cultural. II Congr s Anual sobre fracas escolar. Palma de Mallorca, 24-26/XI. Sevilla: Pablo de Olavide Unibertsitatea.

TAPIA, M. NIEVES (2006). Aprendizaje y servicio solidario. Buenos Aires: Ciudad Nueva.

TIÓ, JORGE; MAURI, LUIS Y RAVENTÓS, PILAR (2014). Adolescencia y transgresión. La experiencia del Equipo de Atención en Salud Mental del Menor. Bartzelona: Octaedro Edizioak.

URUÑUELA, PEDRO (2018). La metodología del Aprendizaje-Servicio. Aprender mejorando el mundo. Madril: Narcea Argitaletxea.

UNESCO (2017). Educación para los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Objetivos de Aprendizaje. París: Organización de las Naciones Unidas para la Educación y la Ciencia. <https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000252423>

UNIÓN EUROPEA (2006). "Competencias clave para el aprendizaje permanente. Un marco europeo. Recomendación del Parlamento Europeo y del Consejo sobre las competencias clave para el aprendizaje permanente". Diario Oficial de la Unión Europea L394. <https://eurlex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=OJ:L:2006:394:0010:0018:ES:PDF>

12.2. Webguneak

CLAYSS: www.clayss.org

REDAPS: www.aprendizajeservicio.net

Programa de Justicia Juvenil de la Fundación Canaria de Juventud Ideo (www.fundacionideo.org)

ZERBIKAS FUNDAZIOA: www.zerbikas.es





EZ AHAZTEKO OHARRAK

Lined area for writing notes, consisting of 18 horizontal lines.





Laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTIZIA Y POLÍTICAS SOCIALES



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral